


ttüpi-ttapa

1994ko Urriak 6 • 143. zenbakia

Erreportaia

**Janariak kontserbatzeko
teknika desberdinak**



Juan Karlos GARRO:

**«APOSTU HAUNDIA DA
PROFESIONALETAN HASTEA»**

BIDASOAKOX. BERTSO PAPER LEHIAKETA

BAZTAN BIDASOA INGURUAN BIZI DIRENENTZAT
BALDINTZAK

- 1.- Argitaratu gabeko bertsoak izan beharko dute.
- 2.- Bertze lehiaketaren batetan saririk jaso duten bertsoak ezin izanen dute parterik hartu.
- 3.- Norberak aukeratuko du **gaia, kantatuko duen doinua eta neurria.**
- 4.- Hiru maila izanen dira:

A- 14 urtetaraino: 4na bertso guttienez.

SARIAK: 1.a Oroigarria eta 5.000 pzta.

2.a Oroigarria eta 3.000 pzta.

B- 14-16 bitartekoak: 6na bertso guttienez.

SARIAK: 1.a Oroigarria eta 8.000 pzta.

2.a Oroigarria eta 4.000 pzta.

D- 16 urtetik gorakoentzat: 8nabertso guttienez

SARIAK: 1.a Oroigarria eta 12.000 pzta.

2.a Oroigarria eta 6.000 pzta.


- 5.- Bertsoak onartuak izateko, izenburua bakarrik eramanen du agerian. Gutunazal itxi batetan bidaliko da, horren kanpokaldean bertsoaren izenburua eta barrenaldean berriz, egilearen izen eta abizenak, telefonoa eta helbidea.

- 6.- Bertsoak GURE TXOKOA Elkartera **Azaroaren 25a** baino lehen bidali beharko dira.

Antolatzailea:

GURE TXOKOA ELKARTEA

Eztegara Ibilbidea • BERA (Nafarroa)



**XORROXIN
KONTZERTUEKIN
10 URTEZ
BELARRIA
GOXATZEN**

EGUNA: Urriaren 29a

LEKUA: Erratzuko frontoia

ORDUA: Gaueko 11k

TALDEAK:

- **HAURTZARRAK**
- **ZARAMA**
- **LA POLLA RECORDS**
- **POTTOKA BAND**

SARRERA: Aitzinetik 900 pezeta

Takilan: 1.200 pezeta

Salgai honako leku hauetan

- Erratzun ZUBI PUNTA
- Elizondo KASINO eta FORTENEA
- Doneztebe, 12
- Lesaka ATXASPI
- Bera, PUY
- Irun, BERTSO-HOP
- Iruñea, KILKIR

baita XORROXIN IRRATIAN, Iruritan

Aukera paregabea



GURPILAK

5.615

pezetatatik
aitzinerat

ETA GAINERAT...
DOHAINIK

**PARATU, BERDINDU ETA
NIBELAK IKUSKATU**

**BEREHALAXEKO HARRERA, AITZINETIKO ESKAERARIK GABE
ORDU BETEAN BAINO FITEAGO**

Azaroaren 15era arteko eskeintza

**PEDRO GARMENDIA, S.A.
RENAULT • ELIZONDO**

Frantziarako Bidea, 57. Km. Tf. 58 04 31/6

NEURRIAK	NEURRIAK	NEURRIAK	NEURRIAK	NEURRIAK
145/70/13	155/70/13	165/70/13	175/70/13	185/65/14
5.615	6.270	7.040	7.915	9.465

DATUAK

❖ Juan Karlos Garro 25 urteko beratarra da.

❖ Elektronika Ikasketak La Sallen egin eta Politeknikoan urte betez ibili ondotik utzi zituen ikasketak.

❖ Bizikletaz gain, pilota eta mendia ditu bere afizioak.

❖ Bizikleta izan da bere pasioa. Karreteran, trialsin-en, ziklo-crossean eta mendi bizikletan aritu da eta denetan ongi. Gustokoena azken hau du.

❖ Profesional mailan urte bakarra eman du emaitza onak lortuz. Coloradon burututako munduko txapelketatik etorri berria da.

Juan Karlos GARRO: «Mendi bizikletan profesional bezala hastea apostu haundia izan da»

NOIZTIK ARI ZARA MENDI BIZIKLETAN?


Mendi bizikletan 22 urterekin hasi nintzen. 16 urtetan alde batera utzi nuen bizikleta, ero boladak jota edo. Ordurarte bizikleta klase guziekin aritua nintzen. Profesional moduan aurtan aritu naiz bakarrik eta emaitzak ikusirik, aitzinera segituko dut.

NOLA JOAN DA ZURE PROGRESIOA URTE HAUTAN?

Hasieran, inguruko karreratara joaten nintzen. Irabazten nuela ikusirik, sari haundia-goetara presentatzen hasi nintzen. "Fast Rock" taldearekin fitxatu eta iaz Euskadiko Openean bigarren gelditu nintzen eta estatu mailako proban hirugarren. Orduan serio hartu nuen. Aurtan Euskadiko Openean hirugarren, Petronor sari nagusian bigarren eta "Open Coronas"en -proba garrantzitsuenan- bigarren egin nuen.

EZ AL DA APOSTU HAUNDIA LANA UTZI ETA BIZIKLETARA DEDIKATZEA?

Probatu nahi nuen, arriskatu. Lana gero ere arrautzen ahal da. Apostu haundia zen profesional bezala ari-



tzea, baina ez nintzen animatu izanen posibilitaterik ikusi ez baldin banu. Aurtan, probatu nahi nuen, eta horren arabera ikusiko nuen aitzinera segitu edo bertan uztea. Ongi ateratzen da eta...

COLORADOKO TXAPELKETAZ ZER BALORAZIO EGITEN DUZU?

Txapelketa ez zen ongi ateri. Baina Sierra Nevadako bortz probak ziren garrantzitsuenak nerretzat, han marka onakegitea eta estatuko selekzioan sartzea. Nerretzat aurtengo denboraldia luzea izan da, joan den azaroan hasi bainintzen ziklo-crossean eta mendi bizikletako denboraldia-ekin bat egin nuen. Orain bukatuko dut eta nekea, 2.500 metrotik goitiko altura eta oxigeno falta Coloradon nabarmentzea ez zen harritzekoa.

ETORKIZUNERA BEGIRA ZER ASMO DUZU?

Profesional mailan segituko dut. Estatuko ekipo garrantzitsu baten fitxatzeko aukera eskeini dit eta "Fast Rock" taldea uzteak pena haundia ematen badit ere, uste dut bakoitzak beretzat garrantzitsuen dena begiratu behar duela. Eskaintza hagitz ona da eta oraindik aztertzen ari banaiz ere, pentsatzen dut etorkizunerako ateak irekitzen dizkidala.

»Egunero hiru orduz entrenatzen dut: batzutan egunean bi aldiz, bertzetan aldi bakarra, mendi bizikleta eta karreterakoa txandaturaz»

TESTUA:
KRISTINA BOAN

Gizakia betidanik saiatu da egunean lortzen zuen uzta edo ehizia, hurrengo hilabetetarako gordetzen, honela zenbait kontserba era ailegatu zaizkigu gaur egun arte, kez eta gatzaz egindakoak lekuko. Orain berriaz, hozkailuak, haizea kentzen duten aparailuak erabiltzen dira janariak kontserbatzeko. Ongi erabiltzen ditugu? Lanak merezi ote du?



TESTUA
M. KARMELE TOLOSA
IMANOL OREJA

JANARIAK KONTSERBATZEKO TEKNIKA DESBERDINAK




gatzarekin egiten den kontserba, zaharrenetakoa izanen dugu gaur egun, batez ere arraiekin erabili izan ohi da, haragia erre egiten baita. Prestatzeko era hau litza-

teke: hezurra kendu, ongi garbitu, zabaldu eta ontzi bateko zola tapatu arte bete, gaintik gatz bota, ondotik bertze kapabat, eta gatz bota janaria guztia estali arte. Bertze kontserba era bat, ozpinarena litzateke. Hau batez ere barazkiekin erabiltzen da: piperminak, tipulak, pepini-loak e.a. Barazkiak ongi garbitu ondotik, pote batean sartu, ura eta ozpinarekin, gatz pixka bat bota eta haizea ongi kentzen dugula segurtatu, bertzenaz, bakterio kaltegarriak sortzen ahal dira eta kontserba hondatuko da.

KONTSERBA POTOAK

Orain gutxi arte arrakasta gehien lortu duen kontserba, poteetakoa edo botiltua (tomatearen kasuan) dugu. Tomateak, frutak eta mermeladak prestatzekoan; janaria potean sartu ondotik, golpe batzuk eman haizea botatzeko, goitiraino ez bete, tarte utzi behar da janaria eta taparen artean. «Bañomaria»n egosi, eta hozterakoan bere gisara utzi epeltzen, kontserba hauek 4-5 hilabeteko epea izanen dute kontsumitzeko, tomateek epe luzeagoa edukitzen ahal dutelarik. Bertzelako barazkiek, ondoek eta prestatutako janariak, prozesu berdina daramate, baina 100º baina gehigoko tenperaturan (autoklabea, olla expres) egosi behar dira, 115ºtan. Poteak gordetzerakoan, tenperatura berdina 5º-6º egonen den leku batean gordetzea aholkatzen da. frigorifikoan, tenperatura aldaketek kalte egiten bait io kontserbari. Poteetako kontserbetan, zenbait arazo sortzen dira batez ere leka eta atuna edo hegaluzearekin. Behar bezala egosiak ez ba-

KONTSERBAK EGITERAKOAN ONGI BEGIRATU
 PRODUKTUAREN PREZIOA ETA EA MEREZI
 DUEN LANA HARTZEA, GAUR EGUN
 EDOZEIN GARAIAZ AURKI
 DAITEZKE PRODUKTU
 GEHIENAK
 KALITATE
 EZIN
 HOBEAN



daude gas arriskutsu bat izaten dute, usaiatz, eta zaporez itxura ona badute ere pozoin-garriak izan daitezke.

KONGELADOREA ERABILIENA

Kontserba era honek izugarriko erreztasunak ematen ditu, ea dena sartzen ahal da eta lan guti ematen du sartu aurretik. Aholku gisa erran, janariak ahalik eta freskuenak sartu behar direla, janariaren tenperatura zaindu behar dela, kongeladorean sartu aurretik frigorifikotik pasa, horrela tenperatura aldaketa guttiago dago eta hezetasunik ez du hartuko. Kongeladorearen tenperatura, ahalik eta bajuen jarri behar da produktu berri bat sartzeko orduan, horrela denbora guttiago pasatuko du kongelatzen eta ezaugarriak hobe gordeko dira. Haragiak, bigundu eta leundu egiten dira kongelatu eta gero, arraiei dagokionez, normalean kongelatzea onartzen dute. Arrai batzuk hariagiaren modura bigundu egiten dira, txipiroiak kasu, legatza eta salmoneteak berriz, ura galtzen dute eta idor xamarak gelditzen dira. Normalean, aldibatean erabiliko ditugun kantidadetan sartu boltsetan, haize gehiena kenduz. Epeari dagokie-

nez, barazkiak 12 hilabete inguru iraungo dute arazorik gabe, haragia gordinik 8, aurrez egindako produktuak berriz 3 hilabeteren buruan kontsumitzea aholkatzen da. Deskongelatzerakoan, frigorifikoan sartu eta janariak behar duen denbora utzi, bortsatuz gero propietateak galtzen dira.

"AL VACIO" EDO "HUSTUARENA": AZKEN TEKNIKA

Kontserbatzeko era hau erabili ahal izateko aparailu baten beharrean gaude. Bi eratakoak daude: bata «hutsa» soilik egiten duena, eta bertzea «hutsa» eta gas inerte delakoa sartzen duena aldi berean. Lehenengo kasuan janariari eta boltsari berari haizea kentzen dio, honek zenbait kasutan produktuaren lehertzea ekartzen duelarik,

bigarrenean berriz, haize guztia kentzeaz gain gas inerte hori sartzen du boltsan eta janariaren propietateak hobeki mantentzen dira. Kalitatezko boltsak erabiltzea gomendatzen da, haizea kenduz gero, aunitzetan punta xorrotxak geratzen baitira, eta hausteko arriskua dute. Kasu honetan edota odola edo ura atera zaiola boltsari ikusten badugu, berrito «hutsa» eginez, produktua berdin berdina egonen da. Epeari dagokionez 6-8 hilabetekoa izaten da normalean. Frigorifikoan gorde behar da. Bapore-labea duenak, oraindik epe luzeagoa lortzen ahal du janaria prestatu, «hutsa» egin eta gero poltsatxoa labean sartzen badu 30 minutuz bakterio guztiak hil egiten baitira. Azkenik, kontserba bat egiterakoan ongi begiratu produktuaren prezioa eta ea merezi ote duen lana hartzea, gaur egun edozein garaian aurki daitezke produktu gehienak eta kalitate ezin hobean. ■



EEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.850 ALE

RGITARATZAILEA: TTPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA.: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

zendaria: Joxemanuel Iri-
ien. **Publizitatea:** Miren Kar-
le Tolosa. **Erredakzioa:** Ai-
Arozena, Joxemanuel Iri-
ien. **Erredakzio taldea:** Pe-
Apezetxea, Juainas Paul,
stina Boan, Bittori Telletxea.
Erriemaileak: Joseba Azpi-
z, Esteban Arozena, Juana
ari Saizar, Ainhoa Mutuberria,
an Isasi, Txema Aldabe, Pello
kegia, Txema Urroz, Patxi
xandorena, Daniel Martirena,
bel Maia, Josune Etxebeste,
blo Mendiburu, Joseba Iga-
bide, Alizia Olaizola, Margari
kenike, Koro Irazoki, Mixel
erendiain, Jacqueline, Marta
rria, Oskar Txoperena, Al-
rto Sansiñena, Pello Apeze-
ea, Aitor Arozena, Kristina
an. **Kolaboratzaileak:** EHNE
afarroa, Patxi Lasa, Josetxo
esperregi.

Primategia: Gertu (Oñati).
Tipi-ttapa ez du bere gain
ortzen derrigorrez, aldizkarian
ierazitako erranen eta eritzien
antzukizunik

akunde Laguntzaileak:
ra, Leitza, Goizueta, Areso,
ztan, Urdazubi, Zugarramur-
eta Sarako udalak, Bor-
rietako Euskara Mankomuni-
tea, Malerreka Zerbitzu
ankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Nafarroa Oinez-eko bestondoa

Bestondoarekin utzi gaituzte, baina besta ebatsita



Joxean OIZ
N.O. koordinatzailea

Orain dela urtebete jende aunitz bildu ginen ikastolan. Lan egiteko gogo izugarriarekin, Oinez 94a izan zen denok elkartu gintuena. Lanean aritu gara urte osoz baina ez omen gara bakarrak izan. Ibili, ibili baitira hor nonbait bertzenazko langileak. Gureak 364 lan egun gogor izan dira. Halere, egunkarietako letra potoloetan bertzeen lan horren edertasunak bertzerik ez dute famatu. Gureak berriz, hutsaren pare! Bestondoarekin utzi gaituzte, baina besta ebatsita. Goiti eginen dugu, ordea! Ez dugu ospatzen ahal baina ikastolak eta euskarak Bideoa egiteko arnasa hartu dute. Nafar ikastolak ekaitzetan ari ginen igerian aspal-di, haizeak alde guztietatik jo gaitu eta aurten itsas haundia iragarri dute. Inoiz baino gogorrago eutsi behar diogu ikastolaren lemarri. Bidasoako uretakoak ez diren tiburoiak ez dira gure kontura bazkatuko. Bideoa egiteko, erre-kara itzuli baita izokina.

Helburu bera izanik bide desberdinetatik gabiltza



Gabina GOIA
Bortzirietako eskolak

Ez dugu batere gogoko izan N.O.en bukaera penagarri hau, ezta ere ekarri duen bestondoa espero. Bidasoako bertze arraintxoak bagina bezala, orain arte ixilik egon gara azken urte honetako korronea ez tratatze-agatik. Halere gaiak kezkatzen gaitu. Urtetik urtera haur guttiago jaiotzen direnez gero, orain dauden ikastetee-kin bada nahikoa kalitatezko hezkuntza eskeintzeko. Bigarren Hezkuntzari begira; Arantza, Bera, Etxalar, Igan-tzi eta Lesakako ikasleak bil-duko lituzkeen euskal eskola publiko bakarraren aldekoak gara; horrela espezialitate-akera zabalagoa izanen bait genuke. Euskaingintzan ari garen guztiok, mututasuna hautsi eta eztabaida emankor-rrari ekiteko tenorea da, es-kualdeko agente guzien par-taidetza nahitaezkoa delarik. Bertzenaz, administrazioak ederki aski segituko du arrantza egiten Bidasoako ur nahasietan gu elkarri mutur-ka ari garen bitartean.

Istiluen arduradun bezala paratu naute komunikabide batean



Josu GOIA
Zinegotzia

Nafarroa Oinez pasatu zaigu. Gauza aunitz hagitz positiboak izan dira guretzat. Izugarri jende pila hurbildu zitzaigun helburu bakar batekin. Euskara la-guntzea. Azkenean eguraldi onarekin topatu ziren. Hu-nekin batera, paisai ederra, ekitaldi desberdin eta politik eta organizazio on batekin, Nafarroa Oinez ezin hobeago atera zitzaigun. Hori lortzeko lan aunitz, jende pila organi-zatzen, ilusio ederraz betetak behar ziren eta proiektu txukun eta eder hori gauzatu egin zen. Bainan hain egun ederra guretzat, ez zen hain ederra bertze batzuentzat. Ezin aguantatu eta, azkenean izorratu ziguten gure besta ederra. Azkenik, neri pertsonalki bertze ondorio bat ekarri dit: prentsa batek (ABC) istilu guzien arduradun nagusi bezala paratu nau eta hasi dira 'anonimoak' xera ailegatzen, hilko nautela mehatxatzen. Zer egin behar!

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:


• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitortpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

BOTA BERTSOA



Nafarroa Oinezeko bestondoa

Jon ABIL

Bortzirietako Bertso Eskola
Neurria: Hamarreko Haundia

Jendetza franko alde batetik eguzki printzez batera "bideosa" egin ziteken entzunik soilik euskera giro jatorrak eta euskaldunak topagune zuen Bera ikastolaren mugimenduak jarraituko du aurrera berrirori ere herkidegoak elkartzen baldin bagera.

Benemeritak festa guztia ke potez zuen ilundu gehien nahia euren artetik nahi zutelako urrundu amorrua ta inpotentzia, herria ezin txukundu ikastolari ta euskarari behingoan ezin lagundu baina hala ere gure hizkuntzak oraindik hainbat lagun du.

Oinez bai, baina gibeleraka

Nafarroa Oinezetik orain-
txe ailegatu gara etxera,
egun guzia Kaxernako
areako txoznan lanean ari
ondoren. Gure herritikadin
guzietako 15 bat lagun
joan gara laguntzera, gu-
rekin batera 17-18 urte
inguruko hainbat beratar
izan direlarik. Gehienak
ezagunak genituen, Be-
rako eskolan ibili ginenean
patio berean ibiltzen bai-
kinen.

Egun guzian zehar frogatu ahal izan dugun bezala, patioa garai haietatik ez dira gauzak aunitz aldatu: Berako ikastolako ume diren hauek euren artean erdaraz alafedea! erdaraz barra-barra! Hauxe da hauxe paradoxa: kanpotik "bi garagardo, faborez" eta barratik barrenera berriz, "¿dónde están las cervezas?" elkarri galdeka. Bokatak prestatzen gine-nei ere, "necesito dos de xolomo" eskaka. Amatoxoren jarrera ere hartu behar izan genuen: "gaurkoan behinik-behin...". Honelakoak Bianan ikus-tea ez zen harritzekoa, poztekoa baizik, gutxienez jendea ikastolari laguntza emateko prest agertu bai-

tzen. Baina Beran? Lanean ari ginen gehienak euskaldunak izanda? Beraz, Nafarroa Oinez helburua dirua biltze soilak izatera pasa al da? Ze motibazio izan dute gazte hauek egun guzia lanean pasatzeko, parranda egin beharrean?

Bertzalde, egun berezi honetan euskaraz aritze-ko esfortzua egiten ez dutenekin, zer eskatzen ahal diegu urtearen bertze 364 egunetan? Antolakuntzak egin al du zer-bait horrelakoak gerta ez zitezen?

OHARRA:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauek. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapak** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

ARGIA astekariak Oinez-en inguruan dossier berezia atera du. Bertan hainbat elkarriketa zetozen. Hauetako baten erranetan Lesakatik Berara euskararen egoera aldatzen omen da, izan ere, "ikastolak eta eskolak patio bera izan dutenez, gazte guziek erdaraz hitz egiten dute". Gure garaian behinik-behin ez zen horrela. Ni nerone Berako eskolan A erudian ibilia naiz. Goian erran bezala, ikastolakoekin ibiltzen ginen patioan, beti ere ikastetxe bakoitza bere aldetik. Handik atera eta Baztango institutuan euskarazko adarra jarri zen martxan. Beraz, hantxe elkartu ginen Berako ikastolakoekin. Lau urte pasa genituen elkarrekin eta denek ez errateagatik, gehienek elkarren artean erdara erabiltzen zuten. Gaur egun ere, jakin badakit hala segitzen dutela. Geroztik, eskolan D erdara sortu da eta nik dakidala behinik-behin, berdintsu dago gauza. Beraz, eskolari kulparik ez.

PATRI ARBURUA
ENA: 72.674.197



LEGARRA

- PAPERTEGIA • TABAKOAK •
- LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZUAK

- ⇒ Fax Publikoa
- ⇒ Enkuadernazioak
- ⇒ Inprenta lanak • fotokopiak

⇒ **%25eko**

deskuentoa
diska, kasette eta liburuetan

Legarra 9, 637030 - LESAKA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO BIDAIAK

BIDAI
AGENTZIA

G.A.T. 2.015

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta
BIDAI
ALTERNATIBOAK

ADRIANA KALEA, 5

☎ 943 - 615177

☎ 943 - 619489

FAX 943 - 619517

20.300 IRUN



LESAKA



Diario de Noticias 94-IX-20

«Attila bere zaldiaz handik pasatu balitz bezala utzi dugu Bera, zerrikeriaz beterik, suzko barrikadekin, telefono-kabinak eta denden beirak hautsita, kaleetan tona batzuk zabor utzirik, gu, ikastolaren aitzakiaz, heldu aitzinetik garbi eta lasai zegoen herria. Lotsa naiz eta damu dut. Otoi, Bera, barka gaitzazu!».

Xabier KINTANA
EHU-ko irakaslea
Egunkaria 94-IX-20

«Nafarroa Oinez-eko istiluetan, gosea eta jateko gogoa elkartu dira».

Manuel IRIARTE
Berako alkatea
Diario Vasco 94-IX-21

«Herri komunikabideok beharrezkoak gara, eta Nafarroak irrati euskaldunak behar dituela uste dugu».

Joseba IGARABIDE
Xorroxin Irratikoa
Argia 94-IX-22

◆ Zer duzu nahiago: organoa edo kantatu?

❖ Kantatu, nahiz eta ohitura galdu dudan.

◆ Ehiza edo onddo biltzea?

❖ Onddo biltzea.

◆ Bazkaria zerorrek prestatua edo bertzeek egina?

❖ Neronek egina nahiago.

◆ Futbola edo pilota?

❖ Pilota, gurea delako.

◆ Bidaia egiteko, itsasoz edo airez?

❖ Itsasoz nahiago, itsasoa ezaguna baitut.

◆ Kirola egin edo telebistan ikusi?

❖ Lehen egin baina orain ikusi.

◆ Ostatuan lagunekin edo etxean leitzen?

❖ Biak ere ez dira txarrak.

◆ Igerileku berrira joan zara uda honetan?

❖ Bai, eta gogotik gainera.

◆ Legatza errea edo saltsan?

❖ Nolanahi, pokadu berezia da edozein modutara.

◆ Kotxez edo oinez gustorago?

❖ Orain aski guti ibiltzen naiz oinez.

◆ Herriko alkatea izanen zinateke?

❖ Ezta pentsatu ere.



Juan Antonio ARBURUA
Etxalartarra

SAROBEn okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

MASAIA eta Bizkortze ariketak

TXOMIN IRAZOKI

(Fisioterapeuta)

EGUN OSOAN

- Goizetan 9,30etatik aitzinera
- Arratsaldetan 2,30etatik aitzinera

Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - BERA

MOLINERO PINTURAK



Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen arabera prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA



Nafarroa Oinezen ondotik baikor agertu da ikastola

Antolatzaileek bi zatitan banatu dute eguna; Ilunabarra arteko besta eta ondoko istiluak

KRISTINA BOAN

Pasa da irailaren 18a eta berekin batera, urte oso bateko lana: Nafarroa Oinez-aren antolatzea. Baikor agertu zaizkigu ikastolakoak emaitzen berri jakitera joan garenean, hasieratik egunak bi zati izan zituela garbi utzirik: lehen zatia, Nafarroa Oinez bera eta bigarre-na 7,30etatik aitzinera gertatutakoa.

Balantze positiboa egin da, hainbertze bel-durtzen zuen eguraldia ere lagun agertu baitzen. Antolakuntza ona erakutsi zen, 1.000 lagun lanean aritu baitziren gauzak ongi atera zitezten. 80 bat mila bi-sitari etorri ziren eta 50 miloi ateri ziren guztira. Arratsaldeko 7,30etatik aitzinera gertatu zena berriz, larria izan zen, baina antolakuntza nolabait istiluak bideratzen saiatu zen. Herria normalitate itzuli da eta ikastolak ikasturte berriari



Bortz lagunek aste betez burutu zuten presoen eskubideen aldeko gose greba Herriko Etxean

Karmele

ahalik eta egokienerantzun nahi dio, aurtengo ere urte gogorra delako. Alde batetik, ikastola berria eraiki beharra dago eta erreforma ezartzeko eztabaidak ere hasi behar dira.

Lanean aritu direnei eskerrak emateko eta soberan dagoen materialari irtenbidea emateko herri afaria antolatu da urriaren 8rako.

Tobi Ruiz intsumisoa irailaren 28an epaitu zuten

Irailaren 28an pasa zen auzitegitik Tobi Ruiz intsumisoa. Momentuz, sententzia eman ez badiote ere, fiskalaren kartzel eskaera bi urte eta lau hilabetekoa da.

Hori dela eta, irailaren 23an, Iamotenean bilera bat izan

zen. Bertan, MOC, Kakitzat eta bi intsumiso aritu ziren solasean. 25ean, manifestazioa izan zen Altzate karrikan eta ondotik, Berako rock taldeek kontzertua eskeini zuten Tobiren epaiketara joateko aurtobusa ordaintzeko.



ttipi-flash

- ❖ **Selektibitatea**
Irailako selektibitate aurkeztu diren Toki Ona institutuko ikasle guztiek gainditu dute froga. % 80ak euskaraz egin zuen eta gainerakoak gazteleraz. Bertzalde, institutuko guraso elkar-teak urriaren 6an burutuko du urteroko bilera orokorra, arratsaldeko 5etan Kultur Etxean.
- ❖ **Gose greba**
Irailaren 19tik 24ra bortz lagun (4 bertar eta etxalartar 1) presoek bizi duten errepresioa salatze-ko gose greba egin zuten. Sei egunez Udaletxean egon dira eta 6 kilo inguru galdu dituzte.



Legia 11 - 63 06 64 BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA

Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA



ANSONEA
JATETXEA

Kontsultatu menu bereziak

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630 072 • BERA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA



Presoen eskubiden aldeko gose greba burutu zuten zazpi lagunek

Huelgari bukaera emateko eliza eta plaza elkartu zuten 123 lagunek giza kate baten bidez

AITOR AROZENA

Irailaren 19tik 24ra zazpi lagunek presoen aldeko gose greba burutu dute bikarioaren etxean, Herriko Etxeak ez baitzuen horretarako gelarik utzi. Grebak irautean zuen bitartean, grebalariek herriko talde eta elkarte ezberdinekin solasean aritu ziren, presoen egoera eta eskaerak jakinarazteko. Huelga bukatutakoan, eliza eta plaza elkartu zituen giza kate bat osatu zen, 123 lagunek parte hartuz. Banaz beritze seina kilo galdu dituzte gose greban.



Zazpi lagunek burutu dute gose greba presoekiko elkartasunean. Huelga bukatuta, 123 lagunek parte hartu zuten eliza eta plaza elkartu zituen giza katean

Argazkia: Aitor

Plater tiraketa saioa antolatu du Basurdek larunbaterako

Larunbat honetan, urriak 8, arratsaldeko 3etatik aitzinera Basurde elkarteak antolatutako plater tiraketa proba burutuko da Agiñarako bidean, eskonbrera zaharrean. Proban nahi duen guztiak parte hartzen ahal du eta 15 plateretara

jokatuko da. Sariei dagokienez, lehendabiziko zazpiak jasoko dute eta horretaz gain, herriko lehenbizikoari eta Basurde elkarteak bazkideen artean lehenari ere sari bana emanen zaie. Izena ematerakoan 1.000 pezeta ordaindu behar dira.



Baionako kamarero laisterketa, 10 kilometroko proba irabazi zuen Jesus Mari Calvo lesakarrak. Hasiera batean, lehen saria kotxe bat baldin bazen ere, zenbait arazo zirela eta asteburu bateko Pariseko bidaiarekin eta 7.000 kilometrorako gasolinarekin konformatu behar izan du.

ttipi-flash

Liburutegiko

arduraduna denbora baterako kontratatzeko 1,1 milioi pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak, Kultur Zuzendaritza Orokorra eta 'Bianako Printzea' erakundearen bitartez.

Jubiatuentzat

gimnasia ikastaroa antolatu du San Fermín elkarteak. Astelehen honetan hasita maiatza bitarte, astelehen eta ortzegunero izanen dira klaseak arratsaldeko 4,45etik 5,45ak arte.

Bertso eskola

ere martxanda. Klaseak ortziraleroko arratsaldeko 8etan izanen dira Arrano elkartearen. Eskualdeko neska-mutil bertsozale guzietan parte hartu nahi duenak Arranora azaldu edo 637891 telefonora deitu.

**KOXKILA
OSTATUA**

*Larunbatetan
mus txapelketak
sari ederrekin*

Zarandia 4 - LESAKA

**IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA**

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

LORA DENDA
TXIRULA
Bitirra LESAKA
627542
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

EKAITZA CAFE
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko
toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA



Larraburuko saihesbidea zabaldu edo ez?

Hilabeteko epea hartu du udalak pentsatzeko

PELLO ETA ALBERTO

Aspalditik heldu da Larraburutik Arrosera doan bidea hobetzeko asmoa. Urte batzuk badira Nafarroako Gobernari horretarako laguntza eskatu zitzaioela. Iduri duenez, orain Gobernu bidea egokitzeko prest dago, berak dena ordainduz gainera, baina bere proiektuaren arabera, zera alegia, hiru metroko bi pasabide izanen lituzkeen bidea, bertze errepide edo karreteraren antzera. Hain zuzen, zati hori bihurtuko litzateke karretera, eta Gobernuak zainduko luke gerora ere. Horrek, bidea gehiago zabaltzeaz gain, bertze ondorio hau ekarriko luke: Larraburutik herrian barrena Arrosera itur-



Larraburua elkarteak Leiren

Arg.: F. IPARRAGIRRE

rirainoko bide zatia. Udalaren gain geldituko litzatekeela, erran nahi baita, berak zaindu beharko lukeela. Gobernuaren proiektuaren arabera ez bada egiten, berriz, saihesbideko lana Udalak ordaindu beharko luke.

Gimnasia ikastaroak 'Larraburua'k antolatutak

Irailarekin hasi dira berriz Larraburua Elkartek antolatutako gimnasia saioak. Hamabortz lagunek parte hartzen du dagoeneko, eta gehiagok ere egingen duela iduri du.

Maiatz-ekainean baino gehiagok. Osasunerako ongarria denez, gimnasia ariketetara ahalik eta jende gehiena animatzera joko du Larraburua Elkartek. Bertze herrietan ere ari

dira horrelakoak prestatzen Arkupeak Elkartekoak. elikadura edo dietetika aukeratu du batek, orrazketa edo ile apaintzea bertzeak, automekanika ere bai,

ttipi-flash

Usategietako igandea urriaren 16an

Dagoeneko pres-tatua dago bez-perako gaupasaren programa. Igande arratsaldean berriz, EGANEK joko du.

Akelarre egunean afaria

Urriaren 8an, larunbata, Larun mendira ibilaldia burutu ondoren, Etxalarren bilduko dira afaltzera Iparralde eta Hegoaldeko jendeak. Egun berean eta ekitaldi berean egingen da etxalartar eta sarratarren arteko topaketa.

XATURETXEA



JATETXEA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat pentsurik egokiena Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR



HERRIKO
OSTATUA
ETXALAR

JATETXEA

© 635290 • ETXALAR

zimeldi

ALTZARIGILEA

▲ Kolorea gustatzen zaizu? Sar ezazu kolore pixka bat zure etxean. Altzari tintatuak egiten ditut

Deitu eta neurriak hartuko dizkizut

© 387017 • ETXALAR

LESAKAKO
ZUBIA

N-121-A



ETXALARKO
BENTA



Azken urte gehienetan bezala, euria San Migel egunean

Dantzari eta txistularien urte guziko lanen emaitzak ikusi ahal izan ziren

OSKAR TXOPERENA

Igantzikoko urteko egun nagusia, San Migel eguna, bertako koruak abestutako mezarekin hasi zen. Ondotik, saio ederra eskeini zuten dantzariak. Azpimarratzekoa da azken bolada honetan kuadrilattiki batekin egin duen lana. Inork deus erran gabe, haur eta gazteak hartu eta deseginda zegoen dantzari eta txistulari taldea berreskuratzea lortu dute. Hemendik ere txalo bat merezi dute.

Artzai zakur lehiaketa

Kubinok, Felix Irigoien zakurrak, irabazi zuen aurtengo artzai zakur lehiaketa. Azkeneko urtetan ez bezala suertea izan ge-



Irailaren 26an ireki zen ofizialki Kristina Agirre etxalartarrak zuzentzen duen CAN-en bulego berria. Apezak egindako bedeinkapenaren ondotik hameketakoa dastatu zuten bertara hurbildutako bezero guziek.

nuen eguraldiarekin eta jende kopuru polita hurbildu zen bertara. Maila ez zen nahi bezain altua izan, inork ez baitzuen lortu borobilean ardirik sartzea. Dena den, Irigoienek

lortu zuen puntu gehien epaileen ustez. Etzen denen gustokoa izan erabakia, Xabier Urien abadiñotarrak salaketa gogorrak egin baitzuten epaileen aurka proba bukatu ondotik.

Irailaren 24ean ezkondu ziren Xebe Txoperena eta Isabel Lakar lesakarra.

Isabelek ere lotura haundia du Igantzirekin, bertako abesbatza zuzentzen baitu.



Felix Irigoien



OKAVE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

KOXXKONTA



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guztietako mobleak



ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 Tfnoa: 637034 - LESAKA


Hemeretzi neska-mutiko ari dira ikasten Lesakako musika eskolan

Bertzalde, Salvatora haunditzeko lur eremuak erosiko ditu laister Udalak

GARBINE ETA ELIXABET

Urtero bezala, ikasurte berriarekin batera Arantzako neska-mutikoak solfeo ikasten hasi dira Lesakako musika eskolan. Guztira hemeretzi gaztetxo hasi dira solfeoa eta instrumentoak jotzen ikasten. Instrumentoekin ari direnei dagokienez, zortzi akordeoia ikasten ari dira, bertze bortz pianoa jotzen, 4 trikitixarekin eta bi klarnetearekin.

Arantzan musikarako afizio haundia da goela dirudi.



Herriko katastroa gaurkotzeko lanak 312.738 pezeta kostako dira

Artxiboa

ttipi-flash

❖ 2.000 pago

planten eskaria egin berri dio udalak Nafarroako Gobernari.

❖ Amekurrun eta Ametxokoko

pinuak ateratzeko pista bat irekitzea onartu du udalak. Lan honen aurrekontua, metroko sei rehun eta berrogeitamar pezetakoa izanen da.

Salvatora haunditzeko lurak erosiko ditu udalak

Salvatora haunditzeko asmoarekin, honen ondoan dagoen lur eremua erosiko dio

udalak Jose Luis Bakedano, bere jabea-ri. Herriko Etxearen ustez, Nafarroako Go-

bernauk erosketa honen ehuneko 70 ordainduko du, aparkalekuak egiteko terre-

noekin egin zuen bezalaxe.

Bertzalde, udal kontuekin segituz, he-

erriko katastroa gaurkotzeko lanak 312.738 pezeta kostako dira.

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

BEREAU
jatetxea

Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 637382 - LESAKA



EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

 **INAKI ITURRIA**

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Instalazio zaharren berritzeak

PORTERO AUTOMATIKOAK

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Jauregieta 12
☎ 635028 - 635246
31760 ETXALAR

Curtidores 5 - 1. ezk.
☎ (943) 61 24 24
20300 IRUN

BOAN TAILERRA

 CITROEN Banatzailea

KOTXE BERRIEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

Herriko Etxeko Plaza - BERA

SASKI
OSTATUA
LESAKA



63 txirrindularik parte hartu zuten III. Mendi Bizikleta ibilaldian

Hiru lehendabiziko postuak beratarrek eraman zituzten eta lehen herritarra Daniel Bertiz izan zen seigarren postuan

JOSUNE ETA IXABEL

Irailaren 25ean ospatu zen Ilurdiko taldeak, Herriko Etxearen eta Ulibeltzak elkartearen laguntzarekin antolatutako III. mendi bizikleta ibilaldia. 63 txirrindularik parte hartu zuten, gehienak herritarrek eta bakarrenez. Txapelduna Kayo beratarra izan zen eta bigarrena eta hirugarrena ere beratarrek ziren. Herrikoei dagokienez, Daniel Bertiz seigarren sartu zen, Igor Agesta zazpigarren, Jose Galarregi hamargarren eta Iñaki Agesta hamabostgarren.

Eguraldia ona atera bazen ere bideak lohi-tuak zeuden eta Esteban Korta gaztetxoazauritua suertatu zen.



Ekerraldeko argazkian Mendi Bizikleta ibilaldia irabazi zuen Kayo eta parte hartu zuen neska bakarra, biak beratarrek. Bertzalde, ortziraletan hasiera emanen zaie Fondako mus txapelketei. Eskuinaldeko argazkian, iaz sarituak suertatu zirenak ageri dira

❖ Mus tximista

Urriaren 7an hasiera emanen zaio Fondan aurtengo mus txapelketei. Partidak ortziraleko jokatu dira 10etan eta lehendabiziko 4 bikoteek sariak izanen dituzte.

❖ Futbol-sala

Kopa I. txapelketaren lehen partiduak irailaren 23an jokatu ziren. 13 taldek eman dute izena, lau taldetan banatuak. Ortziral eta larunbatetan jokatu dira partiduak.

❖ 4. paleta goma


Txapelketan parte hartu nahi duenak urriaren 15a baino lehen izena eman behar dio Juanjo Ibarrari (450459). Futbol-salakoa bukatu eta hurrengo astean hasiko da txapelketa.

❖ Udazkeneko Jira-bira

Urriaren 9an eguerdiko 12etan elizan, Etxarri-Aranazko abesbatza. Azaroaren 6an, arratsaldeko 5etan Ortzadar fanfarrea herriko karriketan barna.

Mari Cruz
LENTZERIA
Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta
Lizun
Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- ☐ Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- ☐ Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- ☐ Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.

Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobetxatu ezazu.

1. kalitateko koltxoia oso prezio interesgarrietan

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE



'Langarra'ren Eguna larunbat honetan ospatuko da Donezteben

Urriaren 16an berriz, Nafarroako lehen mailako aizkolari txapelketa burutuko da

TXEMA ETA KARMELO

Malerrekako 'Langarra' euskara taldeak zenbait ekitaldi ditu larunbat honetarako Donezteben.

Goizeko 9etatik 12etara Sunbillarako trenbidean dagoen harman eskalada gazte-entzatz izanen da. 12etatik 2,30etara inguruko artisauen eta euskal liburuaren erakusketa elizatarian. Honetaz gain, goiz osoan Doneztebeko txistulari, Sunbillako trikitilari eta zankutalde batzuen barna ibiliko dira. 2,30etan bazkaria Jubilatuen Etxean trikitilariak alaitua. Edozein apuntatzen ahal da, ortzirala bitarte 451660 telefonora deituz. Arratsaldeko 5etan herriaren barna poteoa, euskal musikaren laguntza. Akitzeko, 5,30ak aldera Erramun Martikorena, bere arreba eta gitarra jolea elizako arripetan.



Euskalerriko herrialde guztietako ikasleak egon dira hiru hilabetetan Malerrekako Euskaltegian euskara ikasten. Beraien pena bakarra euskara gutti xamar egiten dela Donezteben

Arg.: TXEMA

1. mailako aizkolari txapelketa hilaren 16an Donezteben

Doneztebeko frontoian burutuko da urriaren 16an Nafarroako 1. mailako aizkolari txapelketa. Bertan, Donato Larretxea, Mikel Mindegia, Antonio Jaunarena, Floren Nazabal eta Antonio Senosiain ari tuko dira. Egin beha-

reko lana, lau kanaerdiko, 60 ontzako lau enbor eta bi oin biko (72 ontza) moztea izanen da.

Txapelketa honen kostoa 800.000 pezetakoa da eta Doneztebeko udalak 200.000 pezetako laguntza emanen du.

Administrari

laguntzaileari lan kontratua bukatu zaio. Bertze bat hartu arte laguntzaileak gabe egonen da udala. Liburuzainari berriz, bertze urte batekoa egin dio udalak.

Euskara

klaseak hilaren 10ean hasiko dira. Oraindik apuntatzen ahal da.

Pista moldaketak Saldiasen

Xalbatekoborda eta Danbolinekoborda baserrietara zoaien pista moldatu da. Abuztu ondar aldera akitu zuen 700 metroan egindako lana Azpiroz-Saralegi eraikitzaileak. 7,5 milioitako kostoa izan du, Nafarroako Gobernuak % 75eko laguntza eman du, Eratsungo udalak bere parte eman du eta gainerakoa Saldiasko Herriko Etxeak.

Bertzalde, Saldiasko Herriko Etxeak saiatu da eta buru belarri ariko da ura jaiotzen den tokitik depositoraino doaie tuberia moldatzen.

Ezkurra

erreka bazterretan defentsak paratzeko 11,8 milioi pezetako dirulaguntza jaso du Elgorriagako udalak Nafar Gobernutik.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S. L.

Egunaren 24 ORDUTAN
zure esku gaituzu.
ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA
Tfnoa: 637404

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14



BEINTZA LABAIEN

ttipi-ttapa

5.850 harpidedun
20.000 irakurle



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



Udazkeneko Jira-biraren barnean zenbait ekitaldi antolatu dira

Urriaren 1ean Ortzadar fanfarrea izan genuen eta 23an Lesakako Tantirumairu dantza taldea etorriko da

PELLO ETXEGIA

Urtero bezala, Udazkeneko Jira-Biraren barnean zenbait ekitaldi izanen dira Donamarian. Lehenbizikoa pasatua da, izan ere urriaren lehen egunean, arratseko 7etatik aitzinera Ortzadar fanfarrea izan baikenuen karrikak animatzen. Hurrengo ekitaldia urriaren 23an izanen da. Egurdiko 12,30etan Lesakako Tantirumairu ikastolako dantza taldearen saioa ikusteko aukera izanen dugu.

Eskulan ikastaroa martxan

EPAk antolatutako helduendako ikastaro bat martxan da Donamarian. Guztira hoge-



Joxe eta Mikaleak Artzeko afarian parte hartu ez bazuten ere, hantxe izan ziren lagun egiten

tabi lagunak eman dute izena eta astearte honetan bilera bat egiteko

zuten, klase egunak, ordutegia eta bertzelakoak xehetzeko.

Bestaz besta

Pasatuxeak badira ere, herriko bestak aipatu gabe ezin utzi. Herritarrok ederki pasatu genuen eta ondaregunean, plaza estaliaren inaugurazioa ospatzeko zikiro-jatea egin zen bertsolari eta trikitilariekin. Halere istilu tiki batzuk izan ziren bandera kontuarekin. Bezperan espainola desagertu zen Udaletxetik eta biharamonean ikurriña kendu zuten.

Igurin eta Artze auzoetan ere izan zituzten besta 'partikularak'. Igurinen ongi-torria eman zioten auzokide berri bati eta Artzen auzokoen bazkaria ospatu zuten.

ttipi-flash

Agerreko errekan

100 amuarrainetik gotti hilik aurkitu omen ditu bertako barride batek irailaren 11an. Erreka hontan zikinkeria eta usai txarra nabaritzen hasi ziren orain bi hilabete. Pentsatzen da bakarren batek erreka botatzen duen zikinkeriatatik sortu dela kalte hau

Golbaiko

pistan lan egiten hasi behar zuen makina bat geldiarazi zuten herritarrek besta bezpera egunean. Udan lasai egon ondok berri mugitzen hasi da aferra.



Narbarteko ur-sarea 50 milioi pezetatatan berritu da

Nafarroako Gobernuak ordezkariak izan ziren inaugurazioan


TTIPI-TTAPA

Narbartek ez ditu hemendik aitzinera ur arazoak izanen, irailaren 22an inauguratu baitzuten ur-sare berria. Azken urteetan, 9 orduko ur mozketak izan dituzte herri honetan eta zenbait kasutan, kamioi-zisternen bitartez ekarri behar izan dute ura.

Ura Zeberia erreka bi iturritik hartuko



da eta borts kilometroko tubo sartu dute. Honetaz gain, bi ur deposito egin dituzte Amaia eta Gorriti inguruan, 100.000 litroko bakoitza. Lanen gostaria, 50 milioi pezeta eskaxekoa izan da. Inaugurazio ekitaldian Miguel Sanz Nafarroako Gobernuak lehendakari-ordea eta Herri Administrazioak zuzendaria etorri ziren.





Nafarroa Oinez-94:

GAZI-GOZO EGUNA



NAFARROA OINEZ 94
1.000 lagunetik goiti lanean,
80.000 lagun besta egiten.
Lehenentzat, bizi ezin izan
zenutena ikusteko bederen,
hona hemen egun horretako
argazki bilduma ttiki bat.
Bertze gauza aunitz izan ziren
baina hauek dira guk
bildutakoak



Argitaratzailea: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Arantzako Herriko Etxea, 31790 Arantza, Tfnoa: 634125
Montajea eta Maketazioa: ttipi-ttapa

Oraintxe da abizena euskaratzeko tenorea!

Badirudi udan joan ondoren denak normalizatu egin garela eta lanean hasi garela (lantegia, eskolak, bilerak, ikastaroak...). Halere, euskara oraindik ez da normalizatu eta beraz, berri ere hemen gaude, afera horretan segitzeko indarberriturik. Hurrengo lerro hauetan udazkenak erakusten digun panorama duzue. Beraz, ez zaitezte hotzarekin kuzkurtu eta adi gure proposamenei:

◆ Euskara Batzordeak martxan jarri dira

Baina ez pentsa ezin duzunik hauetan parte hartu! Bilera hauetara euskararen egoerarekin arduratua dagoen edozein etortzen ahal da. Inork ez dezala pentsa talde itxiak direnik: kezkatua dagoen edonori idekiak gaude. Beraz, anima zaitez eta har ezazu parte euskararen normalizazioan. Ez baldin badakizu nora jo zure herriko euskara batzordean parte hartzeko, dei ezazu 634125 telefonora eta bertan informazio guzia hartu ahal izanen duzu.

◆ Euskaratu itzazu zure izen-abizenak!

Aspalditik ari zarete kantatu hau aditzen. Oraingoan Ttipi-ttaparen barrenean honi buruzko diptikoa aur-



guruan ezin dugu berririk eman. Halere, Igantzin urriaren azken egunetan eta azaroaren lehenetan izanen da, Etxalarren ere azaroan izanen da eta Beran berri, Kultur Zikloaren barrenean, "Pecata Minuta" antzeslana izanen dugu azaroaren 19an Kultur Etxean. Eki-

kitu izanen duzue. Uztailean ateratako gehigarrian ere urria alderako prest egoteko erraten genizuen. Hara ba! Urria hemen dago eta beraz, Echeverría, Michelena, Irigoyen... izaten ez baduzu segitu nahi, dei ezazuze Mankomunitatearen egoitzara, 634125 telefonora eta bertan abizenaren grafia aldatzeko tramitazioaren berri emanen dizuegu.

◆ Transmisio Kanpaina-94

Aunitzetan uste izaten dugu umeak D ereduan matrikulatuz gero egin diogula euskarari gure aportazioa. Hori aportazio haundia bada ere, umeek euskara ikasten

duten neurri berean, gurasoek ere ikasi beharko lukete. Kanpaina honen helburu nagusia familia euskalduntzea eta gurasoek umei euskara transmititzea da. Transmisio hau behar bezalakoa izan dadin ezinbertzekoa da gurasoak euskaldundu-alfabetatzea. Beraz, gurasoek, badakizue, matrikula zaitezte lehenbaitlehen Bortzirietako Euskaltegian.

◆ Euskararen Asteak

Besta guziak pasa direla eta, udazkenean zehar herri gehienetan euskara batzordeek antolatutako euskararen asteak izanen ditugu. Momentuz, egitarauaren in-

taldi hauen berri zehatzak Ttipi-ttapan etorriko dira. Beraz, ez zaitez hotzarekin etxean gelditu kanpoan horrelako aukerak izaki eta!

◆ Euskararen kale neurketa

Irailaren 19tik 26ra bi lagun Bortzirietako kaleetan euskararen presentzia neurtzen aritu ziren. Beraz, aste horretan erosketak egitera zindoazenean edota kutxako atarian zinenean lagunarekin erabili zenuen hizkuntza hortxe egonen da paperen batean apuntatuta. Neurketa honen emaitzen berri zehatzak hurrengo gehigarrian emanen dizkizuegu.

Rosa Gallego: «Nere hitz hauek ni bezalakoak animatzeko balio dezaten nahi nuke»

Rosa Gallego duela 34 urte Sevillan sortutako emakumea da. Bortz hilabete bertzerik ez zituenean, Berara etorri ziren eta orduz gero bertan bizi da. Gaur egun, euskaldun batekin ezkondua dago eta hiru semearen ama da. Bere semeek euskaraz ikasten dute, beraz erabat euskaldun ez den familia honetan euskarazko ereduan eskolaratzeko aukera eskaini diete semeek. Betidanik ikasi nahi izan du euskaraz mintzatzen eta etxean ere horretara animatu dute.



Euskara ikastea garrantzitsua iruditzen al zaizu?

Bai. Hagitz inportantea da. Hemen bizi naiz, hemengo kulturaren eta horregatik ikasi behar dut. Hemen bizi ahal izateko denok ikasi beharko genuke, guttienez kanpotik etorritakoak. Bertze tokira bizitzera joan bagina, hangoa ikasiko nukeen bezalaxe, hemen euskara ikasteko obligazioan aurkitzen naiz. Pena dut, tikitan hemen eskolan ibili arren ez nuela euska-

ra ikasteko aukerarik izan. Garai haietan errexago ikasiko nuke. Orain zailagoa da, baina ongi ikasteko prest eta animatua nago.

Norengatik edo zergatik hasi zara euskara ikasten?

Euskara ikasten hasi nintzenean ez nuen semeengan pentsatzen. Beraiek euskal adarrean eskolatuak ziren eta haien

bidea urratuko zuten. Neregatik hasi nintzen, nere buruarekin zor hori nuelako. Orain, nere seme zaharrenak 15 urte dituela ikusita, beraiek ere eskertzen didatela iruditzen zait. Eurentzat inportantea da ama euskaraz ahalegin-tzea. Euskaldun berria izan arren eta beraiekin euskaraz aritzeko traba haundiak badi-tut ere, saiatzen naiz

eta horrek poztzen nau.

Haurrak eskolaratzeko orduan, zergatik erabaki zenuten euskaraz ikasiko zutela?

Nik ez nien niri ukatu zaitzaidan euskarazko hezkuntza hori ukatu nahi. Nik euskara ez jakiteagatik, ez uten nere semeek egoera berdina bizi behar. Ez nuen nahi nere semeek, nere gisa, nere adinera ailegatu eta euskara ikasten hasi behar izatea. Hau da euren herria eta eurek ikasi beharreko hizkuntza. Nahikoa zen amak ez jakitea. Beraz, ez genuen dudarik izan euskal adarrean eskolatzerakoan.

Zure lanposturako nahitaezkoa zenuen euskara ikastea?

Nere lanbideak ez dit eskatzen euskara jakitea, borondatez hasi nintzen eta horretarako dirulaguntzarik jaso gabe. Gainera, ni ez naiz herriko postaria, baserrietan partitzen dut eta logikoagoa da nik euskara ikasteko esfortzua egitea baserri-tarrak erdaraz aritzea baino. Mintza praktikarako aukera handia eman didate.

— Bertze toki batera bizitzera joan bagina, hangoa ikasiko nukeen bezalaxe, hemen euskara ikasteko obligazioan aurkitzen naiz. •

Berriak

Txaloketa.....

Salaketa.....

Antzerkia.....



«UKOREKA»

Patxi Zabaleta

Txalaparta, 409 orri

Miguel Etxegarai, Lesakako medikua lan ederra egiten ari da bere herriko auzo, baserri eta inguruetako izenak biltzen. Toponomia lana egitan inte-

resgarria iruditzen zaigu. Norberaren herria eta historia eza-gutzeko modu bikaina da bertako izenen berri jakitea. Bertze herrietan ere animatzea espero dugu.

Ehizi eta arrantza esparru debekatuak adierazten duten kartelak eta seinaleak gaztelaraz idazten segitzen dute. Bortzirietako Euskara Mankomunitatetik

idatzi bat igorri zen Ehizi eta Arrantza zerbitzuari baina ageri denez, ez zuten kasu haundiegirik egin. Legea ez dute betetzen eta gure eskubidea zanpatzen dute.

Herriko Plaza.....



Belen ARIBILLAGA

Bulegaria

Euskalduna izanik izen-abizenak nere hizkuntzan izateko eskubide osoa dut

Urte mordoxka bat da abizena euskaldundu nuenetik. Zergatik egin nuen? Ni euskalduna izanik, nere izen-abizenak nere hizkuntzan izateko eskubide eta betebeharrak osoa nuelako. Denok dakigu euskal grafia ez dela

erdarakoa. Beraz, nere hizkuntzaren arabera paperetan agertzen ziren akats ortografiko horiek zuzentzea bertzerik ez nuen egin.

Nere kasuan, nere aitatzik eta bere aitak egoki idatzia zuten Arribillaga ('b' le-

traz). Nere aitak eta ondokoak berriz, Arrivillaga. Bistan denez, ez du batere itxura onik norberaren abizena horrela idatzia ikustea.

Jendea animatu nahi nuke pausu hori eman dezan, ez baita berdina MITXELE-

NA eta MICHELENA, edo GOIKO-ETXEA eta GOICOECHEA, bigarren adibideek begietara mina ematen dutela iruditzen zait.

Behin euskaldundu eta gero, ez dago inolako arazorik, lasai bizitzen ahal da.

Txikitandik gurasoek inklusa batean utziriko Beñat da Patxi Zabaletak idatzia lehen eleberri luze honetako protagonista, baina ez du gurasorik edo bere abizenik ezagutzen. Bere bakartasun garrazetik aurre egin beharko die inguruan sortu eta mamituko zaizkion grina eta arazo guztiei, izan ere, etsai eta ukapen askori egin beharko die aurre. Pentsamendu eta askatasunaren aurkako zigorrak eta gorroto eta bekaizkeriak nahasi egingen dira maitasunaren dei eta zirrara xamurrekin. Egitan mardula da politikari eta idazle leizarrak proposatzen digun eleberri hau, hamar ataletan banatua.

Izenburua aukeratzeko orduan bi hitzekin jotzen du idazleak, «UKO» eta «OREKA», hau da, orekaren ukoa eta aintzinako Arkimedes greziar autore haren 'Eureka' harekin...

Etxe izenak nola paratu

Etxe berri bat egiten dugunean, izena eman nahi diogu. Galdu behar ez genukeen asmo eta ohi-tura ona, egitan, izen emate hau. Etxeak, jendeak bezala, bere nortasuna du, eta izenak nortasun hori adierazten eta mantentzen laguntzen du. Begira norainoko inportantzia duen gure herrietan etxearen izenak, aunitzetan etxea-

ren izenaz deitzen baititugu jendeak ere.

Zeragertatzen zaigu, ordea: batzuetan ez dakigula ze izen eman. Bertzetan pentsatua dugu izena baina ez da sobera egokia izaten. Eta jendearen ahotan nahiz paperetan hainbat aldiz eta urtez erabiliko den izen egokia bilatzen saiatzeak balio du.

Etxe izenak, gehiengotan, jendearen izenari eta lanbideari edo inguruari buruzkoak izaten dira. Eta lehengoak ia beti horre-

lakoak ditugu. Batzuk aipatuko ditut: Paulenea, Pauloren etxea; Marimigelenea, Marimigelen etxea; Mikelestonea, Mikelestoren etxea; Mestruenea, maestruaren etxea, Arotzene, arotzaren etxea. Hori jende izen edo lanbideari dagokionez. Hamasei eta hamazazpigarren mendeen, izen horien bukaera -ena izaten zen: Paulorena, Marimigelenena, Mikelestorena, Arotzarena. Gero, 18. eta 19. mendeetan -ena hori -enea bihurtu da. Gaur ere

jendearen izena eman nahi izanez gero, -enea bukaera da egokia. Ez, inola ere, -tegi edo antzekorik. Batzuetan bertze bukaera ere erabili da: -baita. Halanola, Lorentzobaita, Indianobaita, etabar.

Zabalagoa da inguruarekin lotua dagoen izen zerrenda: Mendiandoa, mendiaren ondoan dagoen etxea; Landaburua, landaren hasieran dagoena; Hirigoienea, herriaren bukarakoa; Garaikoetxea, garaian edo goitian dagoen

etxea. Gehien erabilia da inguruari buruzko izena, eta hori jo genezake, gaur ere, izen egoki gehienentz iturritzat.

Ez dirudi hain egokia ideia edo sentimentua azaltzen duen izena: Gure Ametsa, Etxe Polit, eta antzekoak. Hori ez baitute etxearen berezitasunik agertzen, bertzerengandik bereizteko. Izan ere, «gure ametsa» edozein etxeren ezaugarri izan daiteke, bakoitzarentzat bere etxea baita «gure ametsa».





AHOLKURIK BEHAR IZANEZ GERO, DEITU

Etxe berriari izena nola idatzi, hilarrietako plakatxo bat nola moldatu edo komertzio, jatetxe edo ostatu berriaren izena euskaraz nola idatzi ez badakizu, deitu



634125

Argazki erreportaia:
Gema TOLOSA eta
GOIKO





LABIAGA IKATOLAK Nafarroa Oinez 94 honetako antolaketan aritu diren guzti-guztiei eskerririk bihozkorrena adierazi nahi die. Edozein batzordetan zein batzordeetatik kanpo aritu edo lagundu duzuenok jaso hemendik bertatik gure betirako eskertza.

Eskerririk asko aunitz, jakina, urte osoan zehar egindiren kultur eta kirol ekintzatan parte hartu duten guztiei, baita irailaren 18an euskararen alde Berarat inguratu zineten guztiei ere.

Mila esker euren lurrak erabiltzen utzi digutenei, eskerririk asko gure materialea saltzeko euren ostatu eta dendak prest paratu dituztenei. Musutrukean era guztietako hornidurak emandakoak eta Oinez egunean Beratik kanpo lan egitera etorritakoek ere jaso ezazue gure eskertza. Eskerririk asko aunitz salmenta batzordean lanean aritu diren guztiei, almazeneakoei, muntaiakoei, troznetakoei, zirkuitakoei, aparkalekukoei, ikuskizunetakoei, osasunekoei, ekonomiakoei, idazkaritzakoei,

publizitatekoei, Herriko Etxekoei, eta, baita ere, banaka aritu diren guztiei.

Beratarrok, arestian erran bezala, mila esker.

Baina ez aipatu lana eta laguntzagaririk hutsa; baita Herriko Etxearen bandoari jarraitzeagatik, balkoi eta etxeak apaintzeagatik, milaka bisitariak hain ongi hartzeagatik eta azken finean, Berarekin harro egoteko aukera eskeintzeagatik.

Gisa berean, lerroetatik gure eskertza jaso urte oso honetan gertatu ahal izan diren hainbat gaizki egin eta enbarazutan izan duzuen portaera jator eta konprenikorrakatik.

Azkenik, gure eskerririk sakon eta barren-barrunekoena, orri pusketan honetan inoiz kabituko ez diren Oinez 94aren aldeko langile eta laguntzaile guztiei. Izen-deitura guzti horiek bilduko dituen liburua gordea dugu ordea, bihotzean.

Eskerririk Asko aunitz

LABIAGA IKASTOLA

Joaldunen Egunak jende aunitz eta giro polita ekarri zuen

Irailaren 27an bertzalde, garai guztietako eusko gudariak gogoratu ziiren Gudari Egunean

IBAN ISASI

Bete bete eginda geratu zen Udaletxeko azkeneko solairuandagoen ganbara udako azken besta ospatzeko. Goizean joaldun eta trikitilariak ibili ziren. Bazkalondotik bertso onak, purua eta kafea ttantakin. Aizkora apostuan, Joxe Mari Olasagastik eta Patxi Larretxeak irabazi zieten Mikel Mindegia eta Angel Arrospideri. Arratsalde eta gauez besta ederra botatzeko aukera izan zuen jendeak dantzaldian.



Gudari Eguna irailaren 27an

Euri erauntsia zela eta ez zen kalejirarik egin. Horren ordez, ko-

munikatu bat irakurri zen udaletxeko arkupe-tan. Bertan, jende mor-

doxka batek omenaldia eskeini zion garai guztietako euskal gudariei.

Ekitaldia, aurreku eta Eusko Gudariak kantarekin bukatu zen.

Mus txapelketa

Hemendik aitzine-ra ortziraleroko ostaturako mus txapelketa antolatu dute gaueko 9,30etan. Izen ematea 400 pezetakoa izanen da bikoteko. Sari ederrak daude; lehenengoarentzat afaria Aurtizko ostatuan, bigarrenarentzat txuleta eta txanpan botilak eta hirugarrenarentzat txuleta bana.

Urriroarekin batera lasaitasuna ailegatu da herrira

Ostatua jabez aldatuko da, euskaldun berriak joan dira eta EPA ikastaroetan izena emateko aukera zabalik dago oraindik

AINHOA MUTUBERRIA

Urriroa ailegatu da eta berak dakartzkien ondorioak. Euria gogo guztiekin egiten du, haurrak ikasten hasi dira, helduek ere ikas-tea posible izanen dute, EPAk antolatutako ikastaroetara apuntatzen badira. Gutxienez hamabost pertsona elkartu behar dira eta oraindik zerrenda erdi hutsa dago. Aurtetik ikastaroak izanen dira, makrame eta zurgintza alegia. Euskaldun berriak joan dira



Zubietako herriko ostatuak nagusi berria izanen du laister

hiilabetea bukatze-raikoan, ostatuare itxi-

tadago. Haudena elkar-tuta, herria ixilik eta

lasai gelditu da. Dena den, zurrumurruak dau-

de, norbait prest dagoela ostatu hartzeko. Horrela jendea pixko bat mugituko da, nagusi berriak ezagutzeko kuriositatearekin.

Euskararen Eguna

Irailaren 24an euskararen Eguna ospatu zen. Egia esan, euskararen gaua zirudien, arratsaldeko 8etan hasi baitzen. Bertso afarira jende pila bat joan zen eta Jauregi anaiekin izerdia ederki botatzen ahal zen goizaldera arte.



Herri Olinpiadaren bigarren edizioa urriaren 23an burutuko da

Txapelketa honen arauak diotenez, gutxienez emakume bat behar da talde bakoitzean

ESTEBAN AROZENA

Lehenengo edizioari jendeak eman zion erantzuna ikusirik ezinbestekoa zen bigarren bat, eta urteko egitaraua prestatzerakoan Umore Ona elkarteak zuzendari batzordeak ez zuen inolako zalantzarik izan herri olinpiada zerrendan sartzeko. Eguna ere berezi dute dagoeneko, urriaren 23a, baina parte hartu nahi duten taldeek hil honen 15erako izena eman beharko dute Urrutinetabernan, beti kontutan izanik gutxienez emakume bat behar dela ekipo bakoitzeko partaideen artean.

Olinpiada hauen baldintzek diotenez, sei probak osatuko dute



Kalixto Juanarena eta Mª Luisa Zozaia

sailkapena edo kanporaketa: laisterketa, karretilla apostua, zaku laisterketa, koxkor apostua, trontza eta estraperloa. Finalera iristen direnak aldiz, koxkor apostua, tron-

tza, laisterketa eta estraperloa probak gainditu beharko dituzte. Sariei dagokionean esan, talde txapeldunak afaria, 15.000 pezeta eta dominak eskuratuko dituela. Bigarre-

na, 10.000 pezetakin eta dominekin konformatu beharko du.

Urrezko Ezteiak

Berandu xamar jaso baldin badugu ere berri

hau, ezin dira aipatu gaeb utzi herriko bikoite baten urrezko ezteiak. Kalixto Juanarena eta Mª Luisa Zozaiaz ari gara, Gorostin baserriko senar-emazte hauek 1944ko ekainaren 17an ezkondu baitziren Goizuetako elizan. Beraz, aurtan bete dituzte 50 urte elkarrekin.

Bertso eskola

Joxe Manuel Oiarzabalek zuzentzen duen bertso eskolak eman dio hasiera ikasurte berriari, eta ohizko tokian eta orduan bilduko dira aurtan ere. Aipatu, bertsolaritzan trebatu nahi duen edozeinentzat irekia dagoela eskola hau.



43 aresoarrek laguntza eskatu dute Oinarrizko Gizarte zerbitzuan

JUANA Mª SAIZAR

Orain dela lau urte Oinarrizko Gizarte Zerbitzua martxan jarri zen aresoarrentzat. Dakizuen bezala, urdaletxeak diru bat ordaintzen du bere biztanle kopuruaren arabera. Finantziaketa zerbitzu honen partaide diren udalen eskuetan dago (Leitza, Goizueta, Arano eta Areso) eta Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen du. Jende as-

Autobiaren lanen ondorioz karobia agertu da Bondarbor-da azpian garbi garbi



kori iruditzen zaie ez dugula probetxurik ateratzen zerbitzu honeta-

tik etxetik etxeko zerbitzua erabiltzen ez dugulako. Baina %16ak

(43 aresoar) bere laguntza edo eskaerak tramitatu dituztadanik irtenbi-

Ikasurte berria

Ikasurtea hasi da dagoeneko eta eskolan bi gelatan banaturik daude 3-10 urte arteko umeak. Bostgarren mailakoak berriz, asteazkenero hiru irakasle berriekin egoten dira, musika, ingles eta gimnasia emanez. 3. eta 4. mailakoak, asteazkenetan Leitza joaten dira asignaturara hoiek ematera eta han elkartzen dira bertakoekin.

dea emanez bere arazo ekonomiko, fisiko edo sikikoei.



Baserritarren Eguna, urriaren 16an ospatuko da

Aurreko ostiralean, baserritarrak protagonista izanen diren saio berezia eskeiniko dute Karrape Irratian

JOSEBA AZPIROZ

Urriaren 16an, igandea, ospatuko da aurtengo Baserritarren Eguna. Aurreko ostiralean, hilak 14, ilunabarreko 8,30etan irrtati saio berezi bat eskeiniko digute Karrape irratan. Bertan, nolaez, baserritarrak izanen dira protagonista.

Igandean berriz, 10etarako prest egongo dira erakusketa zabaltzeko. Honek 2,30ak arte iraungo du. Bitartean, urtero bezala, taloak salduko dituzte. Eguerdiko 12,30etan behi jeztea nola egiten duten erakutsiko digute eta ordu batean arto zuritzea eta jalkitzea. 3etan bazkaria izango da, aurtengoan jubilatuen elkartean.

Antolatzaileek batez ere baserriko gaien salmenta bultzatu nahi dute aurtengoa, aurreko urteetan jendeak honek eskatu duelako.



Presoen aldeko gose greba

Bost lagunek egin zuten gose greba Udaletxean euskal preso politikoen eskubideen alde. Bertan bildutakoek jendearen elkartasuna azpimarratu zuten. Grebalaria batek utzi behar izan zuen osasun arazoak zirela eta. Gauero hamabi-hambortz lagun biltzen ziren Udaletxean gose grebalariekin batera gaua pasatzeko.



❖ **16-30 urte** dituzten eta langabezian dauden gazteentzako lanbide eta lan orientazioari buruzko ikastaroa antolatu nahi da. Ikastaroa, urriaren 19tik azaroaren 24ra izanen da goizez. Horretaz gain azaroan orientaziorako zerbitzua martxan jarriko da, 7tik 25era arratsaldean.

ttipi-ttapa

5.850 harpidedun
20.000 irakurle

Kaixo, Emakume eta Gazte

Lulu

- Gaur eguneko arropa gaur eguneko jendearentzat
- Neurri guztiak

Renteria 4, S. Miguel • IRUN (616165)

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32 • Tfnoa: 510086 • LEITZA

Zati honek **5.000** pezeta balio ditu

5.000 pzta: 5.850 ale

0,85 pezeta ale bakoitzeko

☎ **63 11 88**

ttipi-ttapa

Auzolana berreskuratu dute Elizondon azken bi larunbatetan

Hogei bat lagunek parte hartu dute eta balorazio postiboa egin du Jon Franzesena, bertako alkateak

JOSEBA IGARABIDE

Auzolana egin da Elizondon azkeneko bi larunbatetan. Egun bakoitzean hogei bat lagun hurbildu dira, gehienak gazteak, Mendinueta karrika garbitu eta Opoka zubiari erdoila kendu eta pintatu dutelarik. Jon Franzesena alkateak balorazio positiboa egin du, aspaldiko ohitura zertxobait berreskuratu delakoz Elizondon. Franzesenak dioenez, azken urteetan alkatea eta kargodunak ia bakarrik aritzen ziren lan hauetan. Bertze herrietan lan aunitz egin da auzolanean.

Presoekiko elkartasuna

Preso politikoekin elkartasuna adierazteko itxialdia burutu zuten 13 pertsonak eta horietako hamekek egun bateko baraualdia egin zuten. Gudariegunean konzentrazioa izan zen Elizondoko plazan.



Jende dexentek parte hartu du Elizondoko azken auzolanetan Ondikol

Gartzaingo bestak, Pilarikaren ohoretan

Urriak 11, asteartea:

6etan suziria eta ez-kilen soinua. 9etan Baztan zopak. Gauez dantzaldia Gozategi taldearekin.

Urriak 12, asteazkena. Pilarika Eguna:

12,30etan meza Pilarikako ermitan. Ondotik mutildantzak eta hameketakoa. Baztan go dantzarien saioa eta

arratsaldeaz duatloia. Dantzaldia Paradis taldearekin.

Urriak 13, ortzeguna. Haurren Eguna:

5etan haurren jokuak eta txokolatada. Ondotik Popi Zaratrako taldearen antzerki emanaldia. Dantzaldia Modestorekin.

Urriak 14, ortzileria:

11etan futbol parti-

dua herriko jendearen artean alkateak arbitratua. 2etan zikiro-jatea. Dantzaldia Modestorekin.

Urriak 15, larunbata:

Goiz-arratsaldeaz mus txapelketa. Arratsaldeaz eta gauez Yatagan taldea. Tartean, 10ak aldera Erramun Martikorenak kantaldia eskeiniko du.

ttipi-flash

San Migelak

pasatu zaizkigu. Ezkur eta gaztain ugari, baina ondorririk ez. Perretxikoak berriz, aunitz belagietan. Egin duen euriak pittin bat arindu du lehortea eta oraingoz aziendak belagietan segitzen dute.

Ensilatze

arto aunitz ekartzen ari da jendea Frantziatik aurtan. 2,5 pezetan erosten dute subproduktu gisa.

Euskara teknikari

lanpostua behin-betikoz betetzeko lehiaketa-oposaketa atera du udalak. Urriaren 15ean bukatzen zen izena emateko epea.

Lekarozko

ur arazoak konpondu dira azkenean, ur depositoa berriz bete baita.



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza



Miren Gortari Sein
© 592310
ORONÓZ-MUGAIRI

MIREN

ileapaindegia

ORDUA ESKA EZAZU

BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA
SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373

ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS

Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia



ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



Bortzehun eta berrogei gasna ebatsi dituzte Amaiurko kooperatibatik

Galera ekonomikoaz gain -700.000 pezeta inguru- horrelakoek morala jeisten dutela erran dute bertako bazkideek

PABLO MENDIBURU

540 gasna ebatsi dituzte SAT Amaiur gasna kooperatibatik, 700.000 pezetan baloratuak. Begoña Etxandi, bertako langileak zera zioen, "bi aldiz sartu zaizkigu eta horietako batean 540 gasna eraman zituzten". Juan Martin Aleman, kooperatibako kideak horrelako gertaerak morala jeitsi egiten dutela erran zuen "batez ere, prezioen aldetik arras ajustatuak ibiltzen garela kontutan hartzen badugu".

Xorroxinen aldeko kontzertua urriaren 29an

Xorroxin iratiak antolatutako rock kontzertu bikaina izanen da



Prezio arras ajustatuekin ibiltzen direla kontutan hartuz, kalte handia egin dio kooperatibari azken ebasketa honek

Arg.: ARTXIBOA

urriaren 29an, gaueko 11etatik aitzinera Erratzuko frontoian. Bertan joko duten taldeak, Haurtzarrak, Zarama, La Polla Records eta Pottoka Band izanen dira. Sarrerak aurrez

900 pezetan salduko dira eta takilan 1.200 pezetan.


Honela, Xorroxin iratiak hamar urte daramazki kontzertuak antolatzen, 1984ko urriaren 13, 20 eta 27an

hasi baitziren kontzertuak egiten punta-puntako taldeekin.

Hau ospatzeko Erratzuko kontzertuan material ezberdina-kamisetak, pinak...-ere salgai izanen dute.

ttipi-flash

- ❖ **Anizko bestak**
umore onean joan dira. Frontoiaren aurpegi berria (teitlatua paratu diote) ere ikusteko aukera izan zuten.
- ❖ **Oronozko**
mediku kontsulta urriaren 6an, ortzegunean inauguratuko da ofizialki.
- ❖ **Aritzakungo**
Lezetakobordan festak ospatu zituzten irailaren 30ean. Bazkaria eta abeslariak izan ziren eta ohitura den bezala, jende aunitz bertaratu zen.
- ❖ **Tenis eskolako**
klaseak urriaren 5ean hasi dira Elizondoko udal polikirodegian. Bertze urtetan bezala, Miguel Pruaño izanen da irakaslea eta datorren ekaina bitarte iraunen du ikastaroak.



SOULE

GURUTZE eta HILARRIAK

☎ 45 30 38 ARIZKUN • ☎ 12 35 72 IRUÑA

FZ
FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure karreteak ORDU BATEZ ERREBELATZEN ditugu "FUJI" kalitatearekin

QSS
FOTOS EN 1 HORA

ZURE ARGAZKIAK
ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIK

IA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE
Tel. Fax. 45 08 25

fm
FOTO MENDIA

OSKORRI
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

MENDI
OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

Sara

Akelarre-94 larunbat honetan ospatuko da


'Mugarik ez' lemapean inguruko herrietako hainbat jende elgarrreratuko da eguerdian Larrun kaskoan

MIXEL ETA JACQUELINE

Aurtengo Akelarre ekitaldia urriaren 8an larunbatarekin ospatuko da, "Mugarik ez lemapean".

Azken sei urte hauetan egiten den bezala kanpaina hunen lehen urratsa (eta zer urratsa!) Larrun kaskoratigotzea izanen da, bertan elgarretaratzeko gisan eguerdi irian. Saratik abiatzen direnentzat hitz orduaplazan finkatua da, 9etan. Arratsean berean, Etxalarko ezker paretan afari herrikoi baten inguruan bildu dira egun horren sustengatzailerak eta partaiderak guztiak.

Ez ahantz beraz eta zuen egutegietan ingura gorri urriaren 8a, egun berexi hori.



Azienda primak: Bixente Garat Pierre Larzabal bere aitatxiarekin

Adinekoen ateraldia ospatu zen buruilaren 21ean

Buruilaren 21ean eta Herriko Etxeak antolatutako, Sarako adinekoek bere ateraldia egin dute. Goizean

100 bat lagun, bi autobusetan abiatu ziren plazatik aro euritsu batekin. Otsozelaiko lezeak bisitatu on-

doan, hameketakoa hartu zuten Bastidan (hau Sarako besten elkarteak eskainia) eta bazkaldu zuten Bar-

dozen. Jakin dugunaren arabera, arras egun xoragarria iragan zuten eta hobe segurki...

Bestetako zozketa

Aurtengo bestetako zozketa egin berria da eta lehen saria Christine Lissayouk (San Pedro ostatuak) esku-ratu zuen. Ibiza aldean aste goxo baten pasatzeko parada ukanen du eta berekin batera bertze lagun bat eramanen du gainera.

Zorionak Christine eta bidaia on. Agian ere hemen baino aro eder-rragoa ukanen duzue Ibizan.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

SUKALDE ETA BAINU MOBLEAK

Egoki-aren banatzaile
baimendua



HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA



MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 60

☛ Zure ingurua klase guztiko insektuz
(xomorro, zinaurre, armai, kukuxu...) eta
arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55

BERA

Hemeretzi emakumek eman dute izena EPAko jostungintza ikastaroan

Bertzalde, irailaren 25ean Lourdeserat egindako bidaian jende andana bat joan zen alderdi hunetatik

ALIZIA OLAIZOLA

Neska-mutikoak eskolan bezala, EPA ikastaroetako jostungintza klaseak ere laister hasiko dira. Ikastaroaren arduraduna Berako Andoni Errandonea izanen da eta irakaslea berriz, Urdazubiko Anastasi Bidart. Dagoeneko, 19 emakume dira izena eman dutenak.

Lourdeserat bidaia

Irailaren 25ean egin zen Lourdes-erat bidaia eta usadioa den bezala jende andana joan zen autobusean.



Emiliano Etxenike, ia kilo bat pisatu zuen onddoarekin

Argazkia: Alizia

Onddo eta perretxiko sasoina


Sasoin honetan, urria alderat, gehienetan onttoak ateratzen direla ez da erran beharrik. Hemen ontto bilariak azkar badira eta hauetarik batek, Emiliano Etxenikek, hain zuzen, ia kilo bat duen onttoa aurkitu du, xuxen erraiteko 900 gramo pasatuak. Ez da batere gaizki. Orain dela hilabete inguru, belagietan hainbertze perretxiko atera ziren. Onttoak ere izan omen dira.

Kanpoan bizi ziren bi herritar kanposantuan lurperatu dituzte

Bertzalde, arrakasta nabaria izan du turisten artean Zugarramurdi eta Sarako lezeen artean egindako bidexkak

KORO ETA MARGARI

Gauza arraroa bezala, urte huntan herrian ez da heriotz bat baino izan. Bainan kanposantuan lurperatuak bertze bi gehiago izan dira. Azkeneko aste hauetan kanpoan bizi ziren herriko bi seme hil ziren eta beren borondatea Zugarramurdi lurperatzea izan omen zen: 'Laxoineko' Iñaki Beola, Donostian hila 57 urtekin eta 'Lapitxeko' M^a Paz Goienetxe, Angleten hila 51 urtekin.



Sara eta Zugarramurdiko lezeen arteko bideak arrakasta izan du udan

Turistak gan dira

Uda gantzaigunean, turistak ere desagertzen ari dire. Orain mugimendua larunbat eta igandetan baizik ez da nabari. Erran beharra da Sara eta Zugarramurdiko lezeen artean egin den bideak arrakasta haundia izan duela eta jende aunitz ikusten zen espreski gantetorri zelai eta polit hau egitera etorriak zirenak.

EZKONTZAK

Pedro M^a Iraola Ormaetxea eta **M^a Isabel Alkaroz Astigarraga**, Billa-bona eta Leitzakoa, irailaren 17an.
Jesus Luis Noain Pedroarena eta **M^a Aranzazu Rodriguez Arakama**, Iruña eta Irungoa, irailaren 10ean.
Antonio Ariztegi Rekarte eta **M^a Rocio Hita Etxandi**, Autum (Frantzia) eta Narbartekoa, irailaren 10ean.
Angel Ramirez Anzizar eta **Clarisa Romero Correa**, Lesaka eta Berakoa, irailaren 17an.
Jose M^a Ayerra Gorena eta **Maria Urteaga Ameztoi**, Iruña eta Elizondokoa, irailaren 17an.
Bautista Erasun Mindegia eta **Ana M^a Elizondo Iribarren**, Labaien eta Lekarozkoa, irailaren 17an.
Matias Sobrino Salaburu eta **Eduarne Etulain Alzuarte**, Arizkungoak, irailaren 17an.
Fernando Berasain Gainza eta **Amaia Goia Errandonea**, Berakoak, irailaren 10ean.
Ana Lukanbio eta **Javier Larretxea**, Arantzakoak, uztailaren 23an.
Xeberiano Txoperena Matxikote eta **Isabel Lakar Abril**, Igantzi eta Lesakakoa, irailaren 24ean.

JAIOTZAK

Arantzazu Lizartza Saizar, Leitzakoa, irailaren 9an.
Maidier Salaberria Orbegozo, Goizuetakoa, irailaren 22an.
Garikoitz Almandoz Arriada, Elizondokoa, irailaren 18an.
Ane Ballarena Añorga, Elizondokoa, irailaren 19an.
Jon Jubera Mariezkurrena, Doneztebekoa, irailaren 2an.
Itziar Jorajuria Mendiburu, Doneztebekoa, irailaren 9an.
Ane Mutuberria Mindegia, Doneztebekoa, irailaren 11an.
Maite Aiestaran Otxoteko, Lesakakoa, abuztuaren 26an.
Jokin Bengoetxea Olaetxea, Lesakakoa, abuztuaren 20an.
Katia Telletxea, Sarakoa, irailaren 10ean.
Mayalen Borda, Sarakoa, abuztuaren 23an.
Xabier Gallardon Eugi, Etxalarkoa, abuztuaren 26an.

HERIOTZAK

Jean Ireland, Goizuetakoa, irailaren 25ean, 60 urte.
Antton Loiarde Eskudero, Goizuetakoa, irailaren 13an, 22 urte.
Mateo Etxenike Huizi, Goizuetakoa, irailaren 4ean, 58 urte.
Juana Bayones Etxeberria, Erratzukoa, irailaren 16an, 88 urte.
Josefa Mihura Erramuzpe, Erratzukoa, irailaren 18an, 93 urte.
Tiburcio Roser Sanzberro, Lekarozkoa, irailaren 22an, 63 urte.
Maria Iñigo Barrikarte, Elizondon, irailaren 23an, 98 urte.
Amelia Arazola Etxeberria, Doneztebekoa, abuztuaren 20an, 87 urte.
Juan Jose Zoziaia Maia, Lesakakoa, irailaren 9an, 89 urte.
Francisco Etxarri Madoz, Aresokoa, irailaren 24ean, 84 urte.
Karlos Ansalas Irisarri, Etxalarkoa, irailaren 21ean, 73 urte.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,**

4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,

2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,

dekorazio denda bat, supermerkatu bat,


aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,

bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta ateak,

hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...

**Denetarik gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.**

Centro Comercial



**LUIS
MARIANO**
Irun

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta Urgentziak	088/061
Osasun Zentruak	
Elizondo	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka	637428 / 637336
Leitza	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako ospitalea	102100
SSko urgentzi zerbitzua	246750
Virgen del Camino erresidentzia	109400
Gurutze Gorria	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea	614600
Gipuzkoako ospitala	460299
Erresidentzia	453800
Anbulatorioak	
Irún	630264/621106
Anbulantziak	
Oitz	450242/450342
DYA	
Lesaka (larrialdiak)	(943) 464622
Doneztebe (larrialdiak)	171717
FUNERARIA	
Doneztebe	637404
Elizondo	580924
Lesaka	637404
Suhiltzaileak	
Oronotz-Mugaire	592255
Garraioak	
Bidasotarra	631150
Baztanesa	580129
Leitzaran	515018
Aberiak:	
Iberduero	450335/450336

Akelarre-94 larunbat honetan ospatuko da

Larunbat honetan, urriak 8, burutuko da Akelarre egunaren edizio berri bat, ohitura den bezala 'Mugarik ez' lemapean. Goizean, Larun gainera iritsi eta gero, (oinez hobe) bi aldeetako jendea bilduko da ordu bata aldera ohizko xardinak jatera, trikitixak ere beti bezala egonen dira.

Ilunabarrean, 8,30etan afaria izanen da Etxalarko herriko ostatuan. Afari horretara joan nahi duenak aurrez txartela erosiko beharko du 1.800 pe-



Eguerdi aldera Larun mendiko kaskoan bilduko dira Akelarre-94ean parte hartuko duen jendeak. Xardinak eta trikitixa ez da faltako...

zetetan eta betiko leketan. afal ondoan "Maixa ta Itziar" tal-

deak bere emanaldia eskeiniko du. Urtero bezala jende mordoxka

espero da, mugaren bi aldetan herri bakar bat garelako erakusteko.

Palma de Mallorcarako 6 bidaiak zozketatu zituen Konsortzioak

Bertizko Partzuergo Turistikoaren Merkatarien Elkartek antolatutako zozketaren sariak ezagutzera eman ziren irailaren 20an.

Konsortziora bildutako komertzioek Palma de Mallorcara joateko sei bidai zozketatzen zituzten eta honako hauek dira zenzaki sarituak:

• **74.966** (Mugairiko Oskorri liburudenda saldua).

• **81.366** (Doneztebe M^o Cruz lentzerian saldua).

• **62.201** (Narbarte-ko Consuelo janaridenda saldua).

• **17.013** (Lesakako Legarra liburudenda saldua).

• **146.962** (Elizondoko Natura Etxean saldua).

• **65.635** (Etxalarko Ansalas janaridenda saldua).

Zorionak irabazleei.

Osasuna mantendu eta berreskuratzeko ikastaroa Beran

Urriaren 10etik 14era, arratseko 8etatik aitzinera osasuna mantentzeko edo berreskuratzeko moduak erakutsiko duen ikastaroa burutuko da Berako Kultur Etxean.

Ikastaroa, Agustín Ducal eta Nora Brizuelak emanen dute eta, egun bakoitzean osasunarekin zerikusia duen gai interesgarriak jorratuko dira.

Honela, gaur egungo egoeraren analisia, kolesterol eta antzeko eritasunak nondik datoz, sendatu eta eritasunak aurreikusteko elikadura, eritasun ezberdinendako errezeta eta tratamenduak eta bizi ohitura okerrak nola moldatu erakutsiko da, bertzeak bertze. Hitzaldi eta filmetan oinarrituko da kurtsoa.

AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

Angel Manuel Belio



AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

DOMIÑENEA Etxea
San Andres karrika, 40 - NARBARTE
☎ 943 - 61 50 55



© 631076 • BERA



KIROLAK ZELA
Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA

Errekalde ostatur

Ortiziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

Iparraldeko selekzioa garaile aurtengo Munduko Pilota txapelketan

250 partiduetako joku maila orokorrean ez da ikaragarria izan eta kritika gogorrak egin zaizkie antolatzaileei

OSKAR TXOPERENA


Joan zaigu bertze behin batez Munduko pilota txapelketa. Hamabigarrena izan den honetan, lehertu dira azkenean aitzineko hilabetetan zehar pilatutako tentsio eta ezinegonak, batzuen mesederako eta bertzeen kalterako. Batzuk, bertako helburuarekin pozez ezin kabiturik eta bertzeak berriz egingdako lan okerra konpontzeko lau urte itxoin beharra ezin onarturik.

250 partidu hamar egunez, ahorrak finena asetzeko zenbaitan — guttietan egia erran — eta pazientziarik haundiena nardatzeko bertze zenbaitan ere.

Iparraldekoak garaile

Azken partidura arte itxoin behar izan genuen selekzio garailea ezagutzeko. Iparraldeko pilotariei egokitu zitzaien Hendaiako Beltzenia pilotalekuan jokaturako paleta larrazko partidua irabaztea. Bitartean, urrezko dominetan zegoen berdintasuna haustea lortu zuten. Ez zen partidu izugarria izan, eta beharbada, bertan jokatzen zenak eutsi zuen jendearen ikusmina.

Ez da oraingo hau mundial interesgarria bezala gogoratuko. Dudarik gabe hau baieztatzeko zenbait finalerdi eta finaletan izandako emaitzak



Senpereko trinketea ikusi ahal izan dira Iparraldean jokatu den mundialeko momenturik politenak

Argazkia: Oskar TXOPERENA

ikustea bertzerik ez dago, ezker paretan jokatutako finalak errate baterako: eskuz banaka, 22-2; eskuz binaka 22-5; paleta larrazko 35-18; pala motzean 40-21. Orohar, Hegoaldeko nagusitasuna pilotaleku honetan.

Maila altua trinketea

Senpereko trinketea jokaturako dominak altxatu dute, nolabait errateko, txapelketaren maila. Zoragarriak bertan jokaturako eskuzko bi finalak eta paleta larrazkoak, xarekoak aitzinetik piztuak

zituen ikusmin guziak deusean gelditu baitziren. Bionikoaren aurka juxtu-juxtuan irabazi bazuten ere, bere onera itzuli dira Iparraldekoak bere alorrean, trinketea. Garaipen orokorra honetan oinarritu zela erraten ahal da.

Zenbait modalitate aipatu gabe uzten baditugu ere, salbuespenak salbuespen, kirol mailan mundial distakroa izan da 94koa.

Zer erranik ez, antolaketari dagokionez. Ez dira oraindik isildu txapelketa bukatu eta

gero zenbait pilotarik egindako adierazpenen oihartzunak. Salaketa gogorak egin dituzte zenbaitzuk pilotarien janariari dagokionez eta bide batez, pilotalekutan eman dieten tratu txarraz. Partiduak ikusteko beurentzat leku aproposa ez edukitzeaz kexu agertu dira.

Ez gara orain egi borobilak diren ala ez aztertzen hasiko baina, Mexiko, Gasteiz, Kuba eta Bartzelonan jokatutako txapelketetan ez dugu horrelakorik entzun.

Bote pronto

Elizondoko

udal polikiroldegian urriaren 5ean hasi dira tenis eskolaren klaseak. Ikastaroa, Miguel Pruaño elizondotarrak emanen du eta datorren urteko ekaina bitarte iraunen du.

Street-Ball

saskibalo txapelketa berezia jokatu da urriaren 29an Elizondoko udal polikiroldegian. Xehetasun gehiago kirol bulegoan.

MUNDIALISTEkin SOLASEAN



Miguel **TXOPERENA**
Igantzikoa
Trinketeen eskuz binaka

hiko sari bazen.

■ **Aurtengo asmoak bete dituzue?**


□ Bigarren gelditza espero genuen, baina mexikanoen eta iparraldekoen jokua ikusita ez da postu txarra. Nik pertsonalki mexikanoen kontra jokatzea espero nuen. Baina ez nintzen ongi eta Sanzek jokatzea normala iruditu zait.

■ **Antolaketa nola ikusi duzu?**

□ Antolaketa ona izan dela uste dut. Jendea janarengatik keajaten da baina ez dut uste hain gaizki zegoenik. Igual, guk pasta gehiago jaten dugu... Pilotarioi ez digute leku bat uzten eta hori da nere ustez fallorik haundiena.

■ **Hemendik aitzinera zer egin behar duzu?**

□ Donibane Lohitzunen txapelketa jokatuko behar dugu. Bertzenaz, 31 urte badituzte eta pilota utzi ere igual egingen dut.



Juntxo **APEZETXEA**
Goizuetakoa
Frontoian eskuz banaka

■ **Zenbat munduko txapelketetan parte hartu duzu?**

□ 22 urtetik behiti Kuban txapeldun izan nintzen eta hau bigarren txapelketa.

■ **Aurtengo antolaketa nola ikusi duzu?**

□ Nik ez diot fallo haundirik ikusten. Ez dut Kubakin diferentzia haundirik ikusten

■ **Helburuak bete dituzue?**

□ Talde bezala txapeldun gelditu gara eta guretzat hori zen

helburua. Eskuz presio haundiagoa izaten dugu, faboritoak izaten baikara. Irabazi dugu eta orain kontentu. Pertsonalki, uste nuen finala jokatuko nuela baina teknikoak bestea jarri du. Pena haundia hartu dut baina zer egin behar duzu.

■ **Zergatik uste duzu besteak jokatuko duela?**

□ Errege koparen finala irabazi zidan Labriten. Semifinalean eskuak hondatu nituen. Gero ez nuen uste eskuk hain gaizki nituela eta finalean aisa irabazi zidan. Gainera partidua telebisatua izan zen.

■ **Etorkizunera begira zein dira zure helburuak?**

□ Ilusioa profesionaletako kontratu bat eskeintzea izaten da baina ez badago eskaintzarik lehengo martxan segituko dut. Eta hurrengo mundialean pentsatzen hasi...

Nafarroako Kirol Jokoetan izena emateko epea zabalik

Irailaren 19tik urriaren 7a arte zabalik dago Nafarroako VIII. Kirol Jokoetan izena emateko epea. Inskripzioa kirol federazioan edo eskualdeko kirol bulegoan egin daiteke (zonan, Elizondoko kultur etxean Elizabeth Santesteban-etaz galdetuz edo 581279 telefonora deituz).

Izena ematerakoan, taldearen datuak emateko orria behar den bezala bete behar da. Kuota-fidantza bat ordaindu behar denez, ordaindutako justifikanteak aurkeztu behar dira eta fidantza itzultzeko kutxaren zenbakia. Honetaz gain, partehartzaile bakoitzaren nortasun agiria eta argazki bat eraman beharko da. Kirol mota bakoitzak bere berezitasunak ditu eta xehetasunen berri eskualdeko kirol bulegoan emanen zaizkizue.

ETXALAR • USATEGIETAKO BESTA

Larunbata, urriak 15

11etan GAU PASA

**BIZKAR HEZURRA
LOS DINOSAURIOS**

Ondotik dantzaldia

URRATS TALDEA

Igandea, urriak 16

6etan

EGAN

AGENDA EGUNEZ EGUN

LURRAREN EGUNA BERA

► Urriaren 23an

Artisau erakusketa eta salmenta, Bortzirietako-gasna lehiaketa.

VII. ONDDO ASTEA ELIZONDO

► Arizkunenean

Urriak 10 eta 11, 'Onddoen bizitza' ikasleentzat.

Urriak 13, gaueko 8etan hitzaldia 'Baztango perretxikuak, ekologi, ingurugiro eta medikuntzarako interesa'.

Urriak 15, Haur lehiaketa

Urriak 16, Perretxiko erakustaldia 12etatik ordu 2etara.

USATEGIETAKO BESTA ETXALAR

► Urriaren 15-16an

Larunbatean kontzertua frontoian eta igandean EGANtaldeak herriko plazan.

GUARDIAKO BOTIKAK

► Urriaren 10etik

16ra Arantza, Sunbilla, Irurita, Urdazubi eta Goizueta.

► Urriaren 17tik


23ra Bera, Ituren, Elizondo (Lezaun), Goizueta.

► Urriaren 24tik

30era Arantza, NARBarte, Elizondo (Iturralde), Goizueta eta Leitza.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Tripakiak

Osagaiak

• 2 kilo tripaki • porru bat • 2 tipula • 150 gr. txistorra • 150gr. urdaiazpiko • 3 piper berde • 2 kilo tomate • pipermin pikantea • gatza •

Prestatzeko manera

Lehenik eta behin tripakiak ongi garbitu behar dira. Urez betetako

eltze batean, porrua eta tipula egosten paratu, tripakiak erantsi ongi egin arte.

Aparteko kaxuela batean, tipula, piper berde, urdaiazpiko eta txistorrarekin 'sofrito' bat egin (arinki frijitu) eta gaitetik tomatea bota.

Tripakiak ongi egosi ondotik (lau bat orduz egon behar dute, ontzi normalean edo ordu bete olla ex-



M^{re} Carmen
IRIARTE
Pierresenea
Jatetxea
• Oronoz •

presen) puxka ttikietan moztu eta arestian egindako sofrito horrerik gehitu. Azkenean dena egosten utzi, gatza eta pikan- tea, norberaren gustura. On egin.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoak): 4.400 pzta.
- Zerri gizena (95-100): 165 pzta/kilo
- Zerramak: 110 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
- Idixkoak: Pzta/kg. Kanál
- Extra 600-630
- 1.koa 585-600
- 2.koa 540-570

Urruxak: Pzta/Kg. Kanál

- Extra 610
- 1.koa 570
- 2.koa 550
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

• Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 25.000 eta idixkoak 34-38.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 39-41.000 eta idixkoak 50-55.000 pzta.

• Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 460 Pzta./Kg. Kanál. Behi gorri ona: 490-520 Pzta /Kg. Kanál.

DATU-ITURRIAK: EHNE,

ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWÍ BAZTAN...



❖ FRUTONDOAK ❖

- Hiru urteko landare bakoitza
- Bertako sagarrondoa 930.
- Udareondoa 930 pta.
- Gerezi ondora 1.050 pta.



❖ BARAZKIAK ❖

- Piper txorizero zientoa 800.
- Piper morro zientoa 800.
- Piperminak zientoa 600.
- Valentziar tipula zient. 250.
- Letxuga zientoa 400 pta.
- Azelga zientoa 400 pta.
- Pepino sorta 25 pta.

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



BESTAK

GARTZAIN

► **Urriaren 11tik 15era.** Pilarikaren ohoretan. Xehetasunak 20. orrialdean.

ERAKUSKETAK

BERTIZ

► **Irailaren 22tik urriaren 8ra.** Bertizko jauregiko erakusketa aretoan, 'Espainiako Parke nazionalak' erakusketa.

► **Urriaren 12tik azaroaren 6ra.** Bertizko jauregiko erakusketa aretoan, 'Pirineoko zuhaitz eta zuhaixkak' eta 'Paisaiak' erakusketak.

ELIZONDO

► **Urriaren 17tik azaroaren 5era.** Arizkunenea Kultur Etxean, Baztango Balleko Etxearen margo lanen erakusketa. Lanegunetan arratseko 7etatik 9etara.

AKELARRE-94

«MUGARIK EZ»

► **Urriaren 8an.** Xehetasunak, Hontaz eta Haztaz sailean.

TAILERRAK

ELIZONDO

► **Larunbatero** urriaren 15a bitarte, bideo tailerra, 4,30etatik 7,30etara (guztira 28 ordu). Arizkunenea Kultur Etxean.

Haurdunaldian bularra ongi zaintzeko zenbait aholku

Haur jaio berriarentzat esne egokia eta onena amarena dela denok dakigu, horregatik ama izan behar duen emakumeak bere bularrak ongi zaindu behar ditu gerora arazorik ez izateko.

Haurdunaldian bularrak haunditu egiten dira eta ondorioz batzutan eroriak gelditzen dira. Bularren itxura hori zaindu egin behar da, batetik erditu ondoren ere horrela gera daitezkeelako eta bestetik, bizkarreko mina eman dezaketelako. Garai honetan bularrak minberak, sentiberak egoten dira eta bakarrik ongi eusten duten arropak, sujetadore onak goxatzen dute emakumea. Aunitzetan pentsatzen da bularra emateagatik bular eroriak gelditzen direla, baina sujetadore egokiak ez erabiltzeagatik gertatzen da hori.

Nolakoa izan behar du sujetadoreak?

Komenigarria da esate baterako:

- Tirante zabalak eta luzatzen (elastikoak) ez direnak erabiltzea.



Bularra ematen hasteko ordurako titi-muturra ongi aterata egotea komeni da, haur jaio berriak titia hartzerakoan errextasun gehiago izanen baitu

- Bularra ongi sartua gelditzea sujetadorearen barnean.
- Torax-aren zabaleran estutzen ez duena izatea.
- Titi-muturra ukondoa eta besogainaren erdialdeko lerroan geldi erazten duena izatea.

Bestalde, garbitasuna zainetzea ere garrantzitsua da. Titi muturra ongi garbitu eta lehortu, zenbait kasutan

krema hidratantea ematea ere aholkatzen da.

Bularra nola eman?

Dena den, bularra ematen hasteko ordurako titi-muturra ongi aterata egotea komeni da, horrela, haur jaio berriak titia hartzerakoan errextasun gehiago izanen baitu. Zenbait kasutan aurrez prestatu beharko da titi mutur hori. Aski izaten da tarteka bi behatzen artean hartu eta masajetxoa ematea bularra pronto edukitzeko.

ARANTXA ZABALA
(ERIZAINA)

ALBARTETXEA JATETXEA

HARAGI ETA ARRAINETAN

ESPEZIALIZATUA

Erreserbak egiteko deitu 627637

Antoiu 26 • LESAKA



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA ☎ 630735
IRUN ☎ (943) 622305

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ora

ETXEBIZITZAK

LESAKA. Bittiria karrikan 80 m² inguruko lokala salgai. ☎ 637404.

LESAKA. 120 m²ko lokala alokatuko nuke. ☎ 637404.

BERA. Pisu bat salgai Agerra auzoan. ☎ 631358 (8,30etatik aitzinera).

Malerreka-Baztan aldean baserri bat behar dugu bertan bizi ahal izateko. ☎ 450325 (Inexa-lñaki).

Etxe edo baserri txiki bat alkilatuko nuke. ☎ 451746 (Paula, bulego orduetan).

BERA. Pisu amueblatua alkilatzeko. ☎ 580392.

DENETARIK

Sukalde kalefaktora salgai, Lakuntza markakoa. ☎ 637883.

Kargarako erremolke tti-
kia eta camping denda
familiarra salgai, dena
batera. Prezioa: 85.000
pzta. ☎ 634126.

Leitzako 3 ikaslek pisu
bat Iruñean konpletatze-
ko mutil bat behar dute. ☎
510339.

120 bajutako akor-
deoia salgai. ☎ 637805.

Megadriveko 'Golden
Axe 2' jokoia salgai,
3.500 pezetatan. Egoera
onean. ☎ 510381 (8,30-
9,30). Egoi.

Oitzen belagiak salgai. ☎
450177

Trikitixa bat erosiko nuke.
☎ 610812.

Gaztain pikorrak erosiko
nituzke. ☎ 322164 (Alfre-
do - Iruña).

Erloju bat galdu da Le-
sakan, irailaren 15ean
arratsalde. ☎ 627507.

Estufa salgai, 'Supra'
markakoa, egoera onean.
☎ 635084 (gauze).

Iruñako Luis Motondo
karrikan bi neska behar
dira pisua osatzeko.
Pentsio erdia eta sukal-
derako eskubidea. ☎
237558.

Harategia eta janariden-

da alkilatzeko Beran. ☎
630869 (arratsaldeko
7etatik 9etara) eta 630553
(eguerdian, 12etatik
3etara).

Mini-organoa SK-200
markakoa eta altaboza
salgai. ☎ 510250.

Sukalde armarioak salgai
prezio onean. ☎ 592157.

Megadrive kotsola,
Mega CD compact diska-
rekin eta 7 jokoein sal-
gai, 60.000 pezetatan. ☎
510180.

LANA

Kartelak, Bisita Txarte-
lak, Talonarioak... egiten
ditugu. Merke eta azkar.
☎ 631188 (bulego ordu-
tan).

Adiministrari lanak egi-
nen nituzke. FP-II ikasia
dut. ☎ 610625 (Itziar).

Neska bat behar da Iru-
ñean fija edo 9etatik
8etara. ☎ 253946.

AZIENDAK

Ardi zakurkumeak opa-
rituko nituzke. ☎ 630766.

Txakurkumeak salgai (4
hilabetekoak), pointer
arrazakoak, aita eta ama
ehizturi onak. Bakoitzak
20.000 pzta. ☎ 450919.

'Pastor Aleman' arrazako
zakur bat erregalatuko
nuke. 10 hilabetekoa da.
☎ 510500.

Dei urgentea. Abuztua-
ren 24ean, Gipuzkoatik
bidalitako 'Eusko' zakurra
(ile motza eta argia du)
jaso zuen pertsona gure-
kin kontaktuan jartzea bi-
hotzez eskertuko genuke.
☎ (943)311386.

Oilagor ehiziko zakur
emea prezio onean sal-
gai. ☎ 634204.

158 ardiren deretxoak
saltzen ditut. ☎ 504492
(gaueko 9etatik aurrera).

IBILGAILUAK

Trail motoa salgai Aran-
tzan, Honda 125 NTX
egoera onean, NA-X ma-
trikula. ☎ 634106 (Xabi).

Peugeot 106 XN salgai,
NA-AG matrikulakoa,
6.000 kilometro bertzerik
ez. ☎ 580247.

AGURRAK

Iruritako Yolandari zorio-
nak bere urtebetetzear,
familiarren partetik.

Berako Txarori: hemen ez
baldin bagaude ere, auni-
tz urtez. Laister elkarrekin
ospatuko dugu. Esther eta
Kristina.

Leitzako Kevin Verari,
bere urtebetetzear (urriak
12) zorionak eta muxu
haundi bat Uxue, Zuriñe,
osaba eta izebaren par-
tetik.



ZALAIN MOTOR

MEKANIKA • KARROZERIA • ELEKTRIZITATEA • GRUA

☎ eta Faxa 63 11 57 • Telefono mugikorra (908) 77 80 23
• BERA •

Aukerako Autoak



Ford Orion 1.600 i SS-AH / 55.000 Km.

Opel Kadett 1.6S
Ford Orion 1.3
Ford Fiesta 1.1
Volkswagen Polo
Ford Orion 1.6D
Ford Escort 1.6D
Ford Orion 1.6D
Ford escort 1.8D

SS-Z
SS-T
NA-V
NA-P
SS-AH
SS-U
SS-U
NA-AB



Ford Fiesta 1.1 NA-V / 81.000 Km.

**Aukera zabala Diesel Merkeetan
Auto errebisatuak eta garantia osokoak**

8,5

%

T.A.E.



3 URTETARAKO
GARANTIZATUTA

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

4

ERAKUSKETA ZURE ONDOAN

BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA

erakusketa

*Senar-emazteen
logela*

erakusketa

*Sukalde-Bainua
Arm. enpotratuak*

MEBLES
AMETS
mobleak orokorrean

erakusketa

Jangela

ASTELEHENETIK
LARUNBATERA
IREKITZEN DUGU,
GOIZ-ARRATSALDEZ

erakusketa

Gazteendako

ESKERRRIK ASKO
AUNITZ !!



KUKUKUMUSU

NAFARROA
OINEZ
BERA 94

Bideosoan

LARUNBATA 8
URRIAK 1 9 9 4

SOROTAN
BELE



BORDATXO



DANTZALEKUAN

DONEZTEBE - NAFARROA

URRIAK 11
ASTEARTEA

DISKOTEKA

SOROTAN BELEren sarrera berakin